# anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2017ko irailaren 1a
15. urtea
687. alea
www.anboto.org
TOKIKOM


## Kultura

Aitor Agirre (Betagarri): “Aro berri bati ekiteko gogotsu geunden, eta horregatik erabaki dugu taldea desegitea”. > 11



**JAIAK!**

ELORRIO
IZURTZA

# Familia berriak



Ume sahararrak etxean hartu dituzten bost familia berri egon dira aurten. Sentimenduz berba egiten dute euren estreinu horretaz. Guztira, 38 izan dira uda pasatzera Durangaldera etorri diren umeak, familietan eta udalekuetan egon direnak batuta. > 2-3

## Trenbideko lurrak espazio libre eta gune berde bihurtuko dituzte

Durangoko Udalak eta ETSk hitzarmena sinatu dute trenbideko lurrak urbanizatzeko. Akordioaren arabera, 7.800 metro karratuko gunea espazio libre eta gune berde bihurtuko dute. Hitzarmenak oposizioaren kritikak piztu ditu. EH Bilduk dioenez, ETSri 4 milioi euro “barkatu” gura dizkiote. Herriaren Eskubideak dioenez, “dekretazo” bidez hartu da erabakia. > 4

*“Normalean, harrera ona izaten dugu; zoriondu egiten gaituzte”*



Ane Elordi | Harriti taldeko kidea > 13







**Zornotza** > 6
Adinekoentzako gune berria atonduko dute Nafarroa Zentroan

**Durango** > 4
Nasa Yuwe hizkuntza sustatzeko laguntza emango du udalak

**Abadiño** > 8
Urien bigarren Kataluniako artzain-txakur txapelketan

**Elorrio** > 9
Jubilatuen taberna “itxuraldatuta” inauguratu dute jaietarako

Herririk herri

# Sahararen alde euren hondar alea ipini duten harrera familia berriak

## Aurten, Durangaldean bost etxe gehiagotako ateak zabaldu dituzte ume sahararrak hartzeko

**ERREPORTAJEA** M. Onaindia

"Hondartzara joan ginen lehen aldian, hareatara bota eta 'Sahara! Sahara!' oihuka hasi zen", azaldu du Aizpea Berrizbeitia matienarrak Luna Lumbrabet ume sahararragaz udan bizitako momentu alai bat akordura ekartzean. Saharako desertuko harearen antza hartu zion umeak euskal kostaldeko hondarrari. Bera bezala, beste hainbat ume etorri dira uztaila eta abuztua pasatzera; Marokoko okupaziotik Aljeriako lurretara ihes egindako errefuxiatuen kanpamentuetakoak dira, hango egoera zailetik eta berotik arnas apur bat hartzeko asmoz etorriak, baita osasun azterketak egiteko ere. Eta hori posible egin ahal izateko, hortxe egon dira harrera familia ugari. Aurten, Durangaldean bost etxe gehiagotako ateak zabaldu dituzte umeak hartzeko; Sahararen alde euren hondar alea ipini duten familia berriak dira.

**38**

ume saharar egon dira Durangaldean. Familietan eta udalekuetan egon dira batuta

### Ume itsua

Rio de Orok proiektuaren ardura hartu duen lehen urtean –Herria elkarteari erreleboa hartuta– egindako kanpainari esker gehitu dira familiarik gehienak. Azken urteetan beheranzko joera egon da, eta aurten buelta eman diote. Pozik daude eta hobetzeko itxaropena dute, Aitor Lejarazu kidearen esanetan. "Aurten joerak gorantz egin du, eta espero dugu gorantz jarraitzea", adierazi du kide izateaz aparte Muntsarazko BERE etxean ume bat hartu duen mutilak. Kasu berezia da, gainera, eurena: itsua da zaindu eta maitatu duten Jadiya Abdi Mohamed.

Aurreko urte bietan, behar bereziak dituzten umeen Rio de Oroko kanpamentura etorri zen Jadiya. "10-12 bat umerentzako lekua dago. Abenduan Saharara joan ginenean, 30 bat umeren fitxak ekarri genituen. Asko berriak ziren, eta Jadiya jadanik bi urtez etorria zen. Gainera, diagnostiko sanitario bat bazeukan", kontatu du Lejarazuk.

Baina, bera eta bikotekideak uda libre zeukaten, eta Jadiya etxera ekartzea otu zitzaien. Itsua izanda, 60 egunean 24 orduz zaindu beharrak kezkatzen zituen hasieran, normala denez. "Etxean egongo ginen ordu hutsetan, zer egin? Horrelako ume bati ezin diozu telebista ipini, ezta pelikula bat jarri ere, eta beste gauza batzuk ere ezin dituzu egin. Baina ez, ez dugu ordu hutsik eduki. Bera oso autonomoa izan da, eta azkenean beste ume bat edukitzea lakoa izan da".

Kalean eta jolasean eman dituzte ordu asko. "Abadiñon laguntxoak egin ditu, eta pilo bat zaindu dute. Alde bakarra zen txin-txaunetara lehen aldiz joaterakoan, berari nondik igo azaldu behar ziotela", esplikatu du Lejarazuk.



Harrera familia berrietako batzuk eta umeak, azken hauek Shararantz bueltatu aurreko egunean.

### Neba-arrebak zaintzaile

Beste kasu kuriosoetako bat Maialen eta Euken Bernas neba-arreba elorriarrena da. 20 eta 18 urte bakarrik eduki arren, umeak hartzeko abenturan murgildu dira, Mettu Mohameden kargu eginda. Hori bai, gurasoen onespenagaz izan dela dio Maialenek. "Amak esan zigun guk ere parte hartzen bagenuen eta kargu egiten baginen, ados zeudela. Ardura sentitu arren, oso gustura ibili gara". Etxetik datorkie sahararren aldeko sentsibilitatea, Eukenen arabera. "Gure izekok betidanik hartu izan du saharar bat, eta geuk ere gura genuen, baina ez geneukan argi zelakoa izango zen esperientzia. Umeak zelakoak ziren ezagutzerakoan, ekarri egin gura genituen". Izan ere, errefuxiatuen kanpamentuetan

> Lejarazu: "Abadiñon laguntxoak egin ditu Jadiyak, eta pilo bat zaindu dute"

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
**Erredakzioa:** 946 232 523
**Publizitatea:** 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko irailaren 1a
14. urtea - 687. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda. **Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

**Lege gordailua:** BI-2268/01
**ISSN:** 1578-7028
**Tirada:** 11.500 ale

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es
PEFC/14-38-00225

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



egondakoak dira biak, herriko institutuak antolatutako bidaietan. 2010etik hona, Amgala herrian elkartasun proiektuak garatzen dituzte institutuko eta Txintxirri ikastolako kideek, Lajwad elkarteagaz batera eta udalaren laguntzagaz. Mettuk azkenengoz hartu du parte programan, adinagatik. “Bere azkenengo urtea izan denez, topera disfrutatu dugu, guztia egin gura izan du: zinea, barrakak...”, esan du Maialenek. Esperientziagaz pozik agertu da neba ere. “Bera etxean egon den bitartean beste giro bat egon da, poztasuna ekarri du”.

Bernas: “Mettu etxean egon den bitartean beste giro bat egon da, poztasuna ekarri du”

### Hasiera, gaitza

Guztiek diote hasieran ez dela erraza, baina gero merezi duela, eta herritarrak proiektuan parte hartzera animatu dituzte. Hori nabarmendu du Jamal Mouludegaz eta bere senarragaz Zornotzako harrera familia bakarra osatu duen Alba Gutierrezek. “Gure etxean arabieraz ere egiten dugu berba, baina abantaila hori edukita ere, berari kosta egin zaio egokitzea. Lehen urtea izan da eta gogorra da hasieran. Baina bigarren hilean askoz lasaiago egon gara”, aitortu du Hiri Ekimena alderdiko zinegotzi ere badenak.

Agote: “Familiaren falta sumatzen zuen apur bat, baina, bestela, ondo moldatu da”

Gustura daude ere Itsaso Agote eta Iñaki Serrano abadiñarrak, Balal Haimadegaz edukitako esperientziagaz. “Hasierako egunetan familiaren falta sumatzen zuen apur bat, baina, bestela, ondo moldatu da. Gainera, beheraldi bat izaten bazuen, familiagaz berba egiten zuen, eta segituan pasatzen zitzaion”, dio Agotek. San Mamesera joandako eguna eta igerilekuan pasatutakoak oroimenean geratuko zaizkie. “Igerilekuan poz-pozik ibili da, denbora guztian barreka”, azaldu du Serranok.

Agotek dioenez, Saharan etxea dutela esan diete Balalen senideek. Aizpea Berrizbeitiaren eta Julio Gonzalezen alabak ere lotura estua egin du Luna Lumbrabetegaz. “Lagunak dira, eta ahizpak direla esaten dute”, amak dioenez. Harreran estreinatu diren boluntario hauek familia berriak sortu dituzte, sahararren esperantza eraikitzeko hondar ale direnak.



Izurtzan egiten dute kanpamentua Rio de Orokoek.



Hamadako Izarrak elkarteko kide batzuk umeekin.

## “Sentimendu askogaz” betetako beste uda bat

### 25 ume saharar egon dira kanpamentuetan

**DURANGO** M.O.

Guztira 38 ume saharar egon dira Durangaldean, familietan eta udalekuetan banatuta. Familietara 8 ume etorri dira Rio de Ororen eskutik, eta beste 5 ume Elorrioko Lajwad elkartearen bidez. Gainera, Rio de Oroko kideek aniztasun funtzionala duten 9 ume jaso dituzte Izurtzako kanpamentuan, eta Hamadako Izarrak taldekoek 16 Atxondon. Durangaldea erreferente da Sahararekiko elkartasunean.

Rio de Oroko udalekua “bikain” joan dela dio Mikel Del Arcok. “Beste urte bat guztia perfektu egon dena, bai umeen bai hezitzaileen aldetik”. 90 bat boluntario egon dira. Medikuei egindako bisitetan ikusmeneko eta esofagoko arazo batzuk sendatu dituztelako pozik agertu da.

Atxondora ekarritako umeek azken urtea dute programan, eta horregatik, “sentimendu askogaz” betetako edizioa izan dela esan du Garazi Etxebarriak. Gainera, osasun azterketa ugari egin dituzte. Hezitzaile eta laguntzaileen lana eskertu du. Datorren urtean beste ume talde bategaz hasiko dira lanean. “200 bat mila saharar errefuxiatuen kanpamentuetan bizi dira, eta egoera gogor horrek ezin du horrela jarraitu”.





Trenbideko lurrak urbanizatuta, Durango zatitzen duen gunea herriguneko espazioan integratuko da.

# Trenbideko lurrak espazio libre eta gune berde bihurtuko dituzte

## Udalaren eta ETSren hitzarmenak oposizioaren kritikak piztu ditu

**DURANGO** Jone Guenetxea

Durangoko Udalak abuztuaren hasieran aurreratu zuen legez, trenbideko lurrak espazio libre eta gune berde bihurtuko dira udalak eta Eusko Trenbide Sareakek (ETS) sinatu duten hitzarmenari esker. Akordioa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikatu zuten abuztuaren 23an, eta orain 20 eguneko epea dago alegazioak aurkezteko. Prozedurari dagokionez, Gobernu Taldeak dioenez, hirigintzako jardunerako hitzarmen bat den heinean, eta ez hiri-antolamendukoa, eskumena alkatetzari dagokio. Beraz, trenbide zaharreko lurren inguruko erabakia ez da plenotik pasatu beharko.

Trenak libre utzitako lurzorua urbanizatzeko adostutako lankidetza-hitzarmenaren bidez, 7.800 metro karratu baino gehiago urbanizatuko dituzte. Tailer zaharrek eta tren-tokiek hartzen zuten eremua urbanizatu eta herriko erdigunean barneratuko dela azpimarratu du Durangoko Udaleko Gobernu Taldeak (EAJ-PSE-EE).

EH Bildu eta Herriaren Eskubidea alderdiek trenbidearen inguruko gaia abuztuan eztabaidatzea kritikatu dute. Dani Maeztu EH Bilduko zinegotziak herritarrei espedientea eskatzeko deia egin die sare sozialen bidez. Maeztuk gaineratu duenez, "hitzarmen honen bidez PNV-PSEk ETS-ri 4 milioi euro barkatu nahi dizkio". Koalizioak irailean erabakiko du alegazioa aurkeztu edo ez. "Edozein kasutan, hitzarmena geldiarazteko pausoak eman gura ditugu. Inguru hori herritarrek iritzia emanda atondu beharko litzateke", dio Eider Uribe zinegotziak.

Julian Ríos Herriaren Eskubidea alderdiko zinegotziak ere Durangoko herritarrei espazio horretan zer egin gura duten galdetu barik adostutako hitzarmena dela kritikatu du. "Informazio eta transparentzia falta itzela dago akordio honen atzean. Dokumentuak aztertzen ari gara. Hitzarmen honetan konpromisoak agertzen dira, baina zehaztapenik barik. Dekretazo bidez egin da, inori kontsultatu barik", dio Riosek.

**7.800**

metro karratutik gora urbanizatuko dituzte Durangoko erdigunean

### Geltoki zaharraren eraisketa

ETSk geltoki zaharreko eraikina botatzeko lanen lizitazioa atera du, eta adjudikatu eta gero enpresak 8 hileko epea edukiko du obra burutzeko. 1,19 milioi euroko aurrekontua dauka egitasmoak. Gainera, egungo geltokiaren sarbidea estali eta hobetzeko beste 322.000 euro erabiliko dituzte. Herritar talde batek 869 sinadura batu ditu *change.org*-en bidez, eraikina ez dezatela bota eskatuz. "Eraikin zaharra egitasmo berriagaz uztartu behar dela deritzogu, alegia, eraikin berriagaz bat egin behar duela, balio historiko eta sentimental handikoa delako durangarrontzat", diote sinadura bilketaren bultzatzaileek.

# Kolonbian arriskuan dauden hizkuntzen alde batu dira

## Nasa Yuwe hizkuntza indartzeko ekimena da



Barreña, Rios eta Zarraga, akordioa sinatzen.

**DURANGO** M.O.

Hegoaldeko hemisferioko hizkuntza gutxituen aldeko lana egiten du Garabide elkarteak, herrialde horietako irakasleen formazioa sustatzen eta elkartrukea lantzen. Durangoko Udalagaz hitzarmena sinatu du, eta horri esker Kolonbiako Nasa Yuwe hizkuntza komunitatea indartzeko ekimena bultzatuko dute. Gaur egun 75.000 bat hiztun dituen lengoaia da. Andoni Barreña eta Arkaitz Zarraga izan dira Pilar Rios alkateordeagaz akordioa sinatzen.

Udalak 16.000 euro emango dizkio Garabideri, Nasa Yuwe hizkuntza berreskuratzeko estrategiak babesteko asmoz. Hango irakasleen prestakuntzaren erreferentzia nagusia euskararen biziberritzean ikastetxeetan eta helduen euskalduntzean izandako esperientzia da. Horregatik, Durangoko zenbait irakasle izango dira euren trebatzaile; hona etorriko dira kolonbiarrak, eta hemengoak ere hara joango dira. Aurretik ere egin izan dute elkartruke hori.

> Durangoko zenbait irakasle izango dira euren trebatzaile; hona etorriko dira kolonbiarrak

# Dendak Bairen argazki lehiaketa martxan da

**DURANGO** M.Z.

Durangaldeko Dendak Bai Merkatari Elkarteak martxan jarri du 2018ko egutegia osatuko duten argazkiak hautatzeko argazki lehiaketa.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, 'Durango' gai lez duen lehiaketan parte hartu gura duenak irailaren 30era arte izango du aukera bere argazkiak email bidez *comercio@dendakbai.com* helbidera bidaltzeko.









# ESTETIKA GIDA



Ana Camarero

## Azala berrindartzeko sasoian gaude

Oporretatik bueltatu zara? Seguru eguzkipean disfrutatu duzula egun hauetaz. Baina, zure azalak horren eragina sufritu du. Udako hileotan, azala aldatu eta ahuldu egin zaizu eguzkiaren, kresalaren, kloroaren eta elikadura aldaketaren eraginez. Oraintxe da sasoia berrindartzeko eta zahartze bizkorra saihesteko.

Zelan egingo dugun? Lehenik eta behin, sakontasunez esfoliatu behar da, eta gero serumekin azido hialuronikoetan aberatsak diren kremekin ondo hidratatu.

Ana Camarero estetika zentroan, azala berehala hidratatzen duen eta lerro adierazleak murrizten dituen tratamendu bat daukagu. Gainera, irailean zehar %50eko deskontua egingo dugu tratamendu horretarako.




## ILE-APAINDEGIAK







## ESTETIKA ZENTROAK







**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**

# Nafarroa Zentroan, sozializatzeko gune berria izango dute adinekoek

## Dependentzia maila baxua duten nagusiei zuzendutako zerbitzua izango da



Nafarroa Zentroko bigarren solairuan hiru espazio berri sortzeko lanetan dabiltza.

**ZORNOTZA** J. Derteano
Zerbitzu berri bat eskaini ahal izateko, obretan dabiltza Nafarroa Zentroan. 500.000 euroko aurrekontuagaz, bigarren solairuan hiru espazio berri sortuko dituzte, eta, bertan, adinekoentzako eguneko arretarako zerbitzua eskainiko dute. Dependentzia maila baxua duten adinekoei zuzenduta egongo da. “Etxean bakarrik egon barik, euren artean sozializatzeko aukera eskainiko duen espazioa izango da”, azaldu du Nafarroa Zentroko arduradun Begoña Nazabalek.

Dependentzia maila altuagoa duten adineko pertsonentzat dagoeneko eskaintzen dute beste zerbitzu bat Eguneko Zentroaren bitartez.

Lanak, ondo bidean, datorren astean amaituko dituzte. Ondoren, besteak beste, ordenantza bat onartu beharko du udalak. Zerbitzu berria 2018ko urtarriletik aurrera martxan egon daitekeela aurreikusten du Nazabalek. Udalak Nafarroa Zentroa osorik birgaitzea da asmoa, faseka eta hainbat urteren buruan egingo dena.

# Astepen kaltetuta zeuden etxeak eraitsi dituzte

## Etxebizitzak ez diren ekipamenduak jartzeko proiektu bat lantzen hasiko da udala

**ZORNOTZA** J.D. / J.G.
Termitek kaltetutako Astepeko 18 eta 25 zenbakien arteko etxebizitzak eraitsi ditu udalak abuztuan. Udalaren osoko bilkuran onartu zuten proiektua, eta, ondoren, auzokideekin adostu zuten. Egitasmoak 100.000 euroko aurrekontua du. Andoni Agirrebeitia alkatearen esanetan, etxebizitzen eraisketak “auzoko bizilagunen bizi-baldintzak hobetzea du helburu”. Orain gune hartako zonalde baterako proiektua lantzen hasiko dira. Bere sasoian, udalbatzar batean zonalde hartako arau subsidiarioak moldatu zituzten, etxebizitzak ez diren dotazioak egin ahal izateko.



Astepen etxebizitzak eraitsi ostean geratu den orubea.

# Hobekuntzak egin dituzte Learreta-Markina eskolan

## 152.000 euroko aurrekontua izan dituzte eskolako lanek, eta datozen egunetan amaituko dituzte

**BERRIZ** Maialen Zuazubiskar
Ikasturte berrirako hobekuntzak egiten ibili dira azken hilabete hauetan Berrizko Learreta-Markina eskolan. Aurtengoan, eskolako obren hirugarren fasea burutu dute eta datozen egunetan lanak amaitutzat emango dituzte.

152.000 euroko aurrekontua izan dute lanek, eta Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru-laguntzagaz —84.530 euro— eta iazko soberakineko diruagaz —67.000 euro— ordaindu dituztela jakitera eman du Berrizko Udalak.

Hirugarren fase honetan egindako lanekin eskolako gimnasioko aldagelak konpondu dituztela, eraikinetan mantentze-lanak egiteko segurtasun neurriak jarri dituztela eta ikastetxeko eraginkortasun energetikoa hobetze aldera zuzendaritzako aroztegia aldatu dutela jakitera eman dute gobernu taldeko kideek prentsa ohar bidez.

# Onartu dute Oleta Otxandiogaz lotzeko proiektua

**OTXANDIO** J.Derteano
Otxandio eta Oleta espaloi bategaz lotzeko eta irisgarritasuna hobetzeko asmoa gauzatzeari ekin dio udalak. Hainbat fasetan egitea aurreikusita dago, eta uztaileko azken udalbatzarrean lehenengo faseko proiektua hasiera batean onartu zuten. Orain alegazioak egin ahal izateko epea ireki dute. Proiektua abuztuaren 21ean argitaratu zuten buletin ofizialean. Beraz, abuztuaren 22tik hasita hilabeteko epea dago alegazioa aurkeztu ahal izateko.

# Udalak eraikin hexagonala berreskuratu gura du

## Herriko kultur eskaerari eta gazteen aisialdirako beharrei erantzuna emateko erabili gura dute

**IURRETA** J.G./M.Z
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eraikin hexagonala bueltatzea eskatzea onartu zuten azken osoko bilkuran, aho batez, udalerriko gazteen beharrizanak asetzeko, Iu Gazte programaren barruan.

Iurretako Udalak prentsa ohar bidez azaldu zuenez, Durangoko Udalak 1967ko irailaren 21ean eskuratutako lursailean dagoen eraikina, eta egun erabilerarik ez duena, behar dute herriko kultur eskaerari eta gazteen aisialdirako beharrei erantzuna emateko. Gaur egun udalak horretarako dituen azpiegiturak — Ibarretxe Kultur Etxea eta Goiuria Kultur gunea— osatu gura dituzte udalerriko gazteen beharrizanak asetzeko.

Bestalde, ondorio horretara, urte honetan zehar garatu duten IU Gazte izeneko programaren bidez heldu direla jakitera eman dute udaleko kideek.



# GREMIOEN GIDA

## GARBIKETA

AZKARGI GARBIKETAK
Auzo elkarte, garaje eta obra osteko garbiketak
Goieta, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215

## ZURGINTZA

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK
www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK
Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

## DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak
Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
Pintura eta pintura apaingarria.
Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.
Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

## ITURGINTZA

Mallabiena
K21
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.
Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

## ITURGINTZA

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA
info@aldekoaotalora.com
692 859 779
Zubiaurre, 8
IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14
ABADIÑO
944 071 791

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza
946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.

Profesionalik onenak zure zerbitzura!

# Kataluniatik bigarren sari bat ekarri du Joxe Urien Mendiolako artzainak

## Domekan, Castellar de N'Hug herrian jokatu zuten artzain-txakur txapelketa



Joxe Urien, Joxemari Bengoa eta Juan Egurrola artzainak, Carles Puigdemont Kataluniako presidenteagaz.

**ABADIÑO** Itsaso Esteban
Bartzelonako Castellar de N'Hug herrian jokatu zuten artzain-txakurren txapelketan bigarren saria eskuratu zuten Joxe Urien artzain abadiñarrak eta Xarpa bere txakurrak, domekan. Hilari Novillo artzaina eta Witney bere txakurra izan ziren txapelketako irabazleak, eta Urienek ez ezik, Euskal Herriko beste bi artzainek ere parte hartu zuten 55. edizioan.

Oñatiko artzain-txakur txapelketako antolatzaileek gonbidatuta joan ziren hiru euskal artzainak Castellar de N'Hug-era, eta Carles Puigdemont Kataluniako presidenteagaz egoteko aukera izan zuten.

> Joxe Urien: "Artzain-txakurren probetarako tradizio handiko lekua da Castellar de N'Hug"

Duela 37 urte parte hartu zuen Urien Mendiolako artzainak txapelketa horretan lehenengoz, eta lehenengo saria ere irabazi zuen edizio batean. 1.400 metrotik gorako altueran dagoen herria da Castellar de N'Hug, "artzain-txakurren probetarako tradizio handiko lekua", Urienen berbetan.

Azken hiru urteotan beragaz dabilen Xarpa txakurragaz egin zuen domekako saioa Urienek. Txakur "umila, esanekoa eta bizkorra", Urienen berbetan.

14 urtegaz hasi zen artzain Joxe Urien. Orain 56 ditu. Bederatzi txapel irabazi ditu Bizkaiko txapelketan, lau Oñatikoan, eta bi Euskal Herrikoan. Anaiagaz eta semeagaz konpartitzen du zaletasuna.

# Komun publiko berria jarri du udalak Axpen

## Beste hainbat hobekuntza ere egin dituzte auzoan

**ATXONDO** M. Z.
Azken hilabeteetan hainbat hobekuntza egiten ibili dira Axpen, eta horietako bat pilotalekuaren ondoan jarri duten komun publiko berria da.

Komun honi esker, adin nagusiko pertsonak eta mugikortasun arazoak dituztenak bertara erraz iritsi ahalko direla adierazi dute Atxondoko Udaleko kideek. Izan ere, orain arte auzoko komun publikoetara joateko, pilotalekuko eskailerak jaitsi behar zituzten erabiltzaileek.

Komun berria egiteaz gain, Axpeko plaza inguruan ere hainbat berrizte lan egin dituztela jakitera eman dute. Esaterako, zaharkituta zeuden kale-argi, jesarleku eta zakarrontziak kendu eta berriak jarri dituztela adierazi dute.



Axpeko komun publiko berria.

# Aldundiaren Gaztedi planagaz bat egin dute

## Udalak aho batez onartu du Gazte planera batzea

**ZALDIBAR** I.E.
Durangaldeko beste hainbat herrik bezala, Bizkaiko Aldundiak kudeatzen duen Gaztedi Bizkaia 2020 egitasmoagaz bat egitea erabaki du Zaldibarko Udalak. Uztailaren 19an egin zuten osoko bilkuran, aho batez onartu zuten EH Bilduk, EAJk eta PSEk hiru urterako loteslea izango den planagaz bat egitea.

2017, 2018 eta 2019 urteetarako gazteei zuzenduriko politika integralak martxan jartzea da plan horren helburua. Herrietan formakuntza bultzatuz, gazteen lan mundurako sarrera laguntzea. Gazteen artean sorkuntza, parte-hartzea eta ongizatea ere sustatu gura dituzte.

Planari begira hainbat ekarpen egiteko, Udala Aldundiagaz batuko da hil honetan. Arantza Baigorri alkateak nabarmendu du Zaldibarko Udalak ez zuela herriko gazteriari onurak ekarriko dizkion plan horretatik kanpo geratu gura. Hala ere, EH Bilduk beste herri batzuetan egin duen bezala, Aldundiak Amankomunazgoa planetik kanpo utzi izana kritikatu du.

# Errekondo taberna ez du esleitu udalak

**MAÑARIA** J.D.
Udalaren jabetzakoa den Errekondo tabernaren zerbitzua emateko lehiaketa publikoa abiatu zuten uztailean. Epealdia amaituta, eskaintza bakarra aurkeztu zutela informatu dute udaletik, eta bera epez kanpora aurkeztu zutela. Ondorioz, abuztuaren 10ean burututako ezohiko osoko bilkuran, Errekondo tabernaren zerbitzua kontratatzeko prozedura hutsik deklaratzea adostu zuen Mañariko Udalbatzak, aho batez.

# Aboiz jatetxean egon dira Canal Cocina katekoak

**GARAI** M.O.
Canal Cocina telebistak Atun Rojo Balfegó lehiaketa gastronomikoa eskainiko du, eta Euskal Herrian egindako azken grabazioa Garain izan da, Aboiz jatetxean. Dani Garcia sukaldariaren lana ezagutu, eta Iratxe Azpitarte arduraduna ere elkarrizketatu dute.

Lehiaketako finala hilaren 27an izango da, Bartzelonan. Garciagaz batera, beste euskal sukaldari bi egongo dira, tartean Boroa jatetxeko Iñigo Elorriaga ere bai.





# Herritar guztiak erakarri gura dituen jubilatuen taberna ireki dute

Ferixa Nausikoetan ordutegi berezia izango du itxuraldatutako tabernak



Hainbat elorriar joan zen Aldatzekua Jauregian dagoen tabernaren inaugurazio ekitaldira. Berazako jubilatuen taberna

**ELORRIO** Aitziber Basauri

Ekainean ateak itxi ondoren, Ferixa Nausikoen atarian ireki ditu berriz ateak jubilatuen tabernak. Itxuraldatuta. Elorrioko artisten margolanek jantziko dituzte berriztutako tabernaren hormak, eta terraza ere jarri dute. Bertan dagoen Beraza parkeari "bizitasuna" eman eta jubilatuentzat ez ezik herritar guztiei zabaldutako taberna izatea lortu gura du kudeaketa eramango duen Maite Arginzonizek, "gainontzeko herrietan legez". Jubilatuentzat prezio bereziak izango ditu tabernak eta gainontzekoentzat inguruko tabernen prezioetara moldatuko dira, azaldu duenez.

Joan zen eguaztenean inaugurazio ekitaldia egin zuten eta hainbat elorriar bertaratu zen itxuraldatuta zabaldutako jubilatuen tabernara. Jaietan ordutegi berezia izango du tabernak.

## Birigarro eta uso-paseak zotz egingo dituzte

**IZURTZA** J.D.

San Iurgi ehiza elkarteak usoen eta birigarroen paseak banatzeko zozketa bi egingo ditu irailean. Lehenengoa irailaren 15ean izango da, 19:00etan, Izurtzako Argintxu elkartean. Bertan irailerako eta urrirako paseak zozkatuko dituzte. Bigarrena irailaren 29an egingo dute, ordu eta toki berean. Kasu honetan, azarorako eta abendurako paseak banatuko dituzte. Zozketak Bitañon eta Mendiganen dauden lerroetarako dira. Bitañon launa postuko bi lerro daude eta Mendiganen zazpiko bat. Izen-emate orriak Herriko tabernan, Antonio Txiki okindegian eta gasolindegian daude. Lehen zozketaren kasuan, orriak irailaren 13ra orduko entregatu behar dira, udaletxeko atarian duten buzoian, eta bigarrenaren kasuan, irailaren 25a baino lehenago.

## Zientziarako kuriositatea pizteko tailerrak

**MALLABIA** J.D.

Gazterobotika gazteen artean zientzia, teknologia eta ingeniaritzarekiko zaletasuna pizteko proiektua da. Robotikaren arloan adituak diren Doplay enpresako arduradunak herriz herri ibiltzen dira 6 eta 16 urte arteko gaztetxoekin tailerrak eginez, tokian tokiko udalen babesagaz. Irailaren 4tik 8ra Mallabian izango dira. Gazteek hutsetik robot bat egiteko edo bideojoko bat programatzeko aukera izango dute.

Gazterobotika egitasmoa irailaren 23an Eibarren egingo duten Euskadiko txapelketagaz amaituko dute. Robotikaren eta teknologia berrien inguruko topaketa izan gura du txapelketak. Mallabiko tailerretan parte hartzen duten gazteek euren robotoa txapelketa horretara aurkeztu ahal izango dute, gura izanez gero.

### DURANGALDEA ASTEON

## Lan istripua jazo da Boroan, industrialdean

**ZORNOTZA >** Zornotzako enpresa batean, Boroan dagoen Ilarduya fundizioan, lan istripua gertatu zen atzo goizean. Behargin bat altueratik jausi zen. Anbulantzian Gurutzetako ospitalera eraman zuten, eta sanitarioen eskuetan utzi zuten, Bizkaiko suhiltzaileek eta Ertzaintzak informatu dutenez.

## Diru-laguntza euskara ikasi dutenentzat

**ABADIÑO >** Azken urteotan egin duen bezala, iazko ikasturtean euskara ikasten jardun diren herritarrei diru-laguntza eskainiko die Abadiñoko Udalak. Irailaren 1etik 29ra arte aurkeztu ahalko dituzte abadiñarrek diru-laguntza hori jasotzeko eskariak, Traña-Matienako kultur etxean edo Zelaietako Udal Mediatekan.

## Coloradoko Durango herritik bisitan

**DURANGO >** Coloradoko (AEB) Durango herriko Dean Brookie zinegotziak Euskal Herriko Durango bisitatu du, eta hango oroigarri den giltz bat eman dio Goiztidi Diaz ordezkariari. Durango Herald agerkariak jaso du bisitaren albistea. Bere semearen ezkontzarako bidaia aprobetxatuta egin du bisita.

### SEI HANKAKO MAHAIA

**JULIAN RIOS**

SQ-2D



**Zer arnasten dugu?**

Azken hilabeteetan jendea kexu da Durangoko eta Durangaldeko leku askotan dagoen hatsagatik. Hats hori sarkorragoa eta desatseginagoa da arratsaldeetan.

Informazioaren eta komunikazioaren aroan ez da posible durangarrek ez jakitea zer arnasten duten, zer aire-kalitate dugun, eta hori dena informazio faltagatik da.

Herri askotan aire-kalitateari buruzko informazio sistemak dituzte, eta Durango ezin da alde horretan atzean geratu. Etengabeko hatsa dela-eta, herritarrak informatuta egon beharko lirateke, uneoro.

Udalaren ardura da egoera hau salatzea, diagnostikatzea eta beharrezko neurriak hartu daitezen eskatzea. Enpresa batzuek ba omen dituzte detektagailuak, baina herritarrok ez dugu informazio hori jasotzeko aukerarik.

Aire-kalitatearen arazoaz gain, errekan egiten diren isurketen arazoa ere mahai gainean dugu. 2017ko ekainaren 2an Arro Hidraulikoetako Bulegotik sei isurketen berri eman ziguten, eta hartu beharreko neurriak hartzeko eskatu ziguten kontrolik gabeko isurketa ilegal horiei aurre egiteko.

Horregatik guztiagatik, durangarrok jakin egin behar dugu ze aire mota arnasten dugun eta zer gertatzen den gure erreketako urekin. Biztanleen osasuna jokoan dago, eta hori onartezina da.

**Erredakzioan itzulia*

### IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.



# Berbaz

**Idoia Astigarraga Agirre** | Komunikazioan doktorea eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea | Durango, 1967

# *"Ez da egia gazteak telebistari bizkarra emanda bizi direla, horretan batere interesik ez dutela"*

Ikus-entzunezko edukiekin 18-24 urte arteko gazteek duten interakzioa ikertu du Astigarragak



**> BERBAZ** Aitziber Basauri

**Madrilen ikus-entzunezko ikasketak bukatuta, hiru urtez ETBn egin zuen lan, errealizazioan. Londresera joan zen ikus-entzunekoen master bat egitera, eta Euskal Herrira itzulita telebistagintzari ekin zion berriro, programen errealizazioan, produkzioan eta zuzendaritzan. Goenkalen eta Wazemanken egin du lan, besteak beste. EITBn 14 urtez jardun eta gero, 2007tik irakasle da Mondragon Unibertsitatean. Doktoregoa lortu berri du.**

**'Gazteen interakzioa ikus-entzunezko edukiekin: Mondragon Unibertsitateko ikasleen kasua' ikerlanagaz lortu duzu doktoregoa. Zerk eraman zintuen hori ikertzera?**

Egun ikus-entzunezko edukiak oso txertatuta daude gure bizimoduan, batzuengan beste batzuengan baino gehiago, baina ikusi egiten dira eta egunerokoan ohikoa dira. Hala ere, dauden aukera guztiekin, gazteen artean zein interakzio dagoen jakin gura nuen: edukien partekatzean, sorkuntzan, eduki horietaz jardutean... Interakzio gehien gazteen artean egon zitekeela-eta, abiapuntua hori izan nuen. Mondragon Unibertsitateko kasu azterketa izanik, denak dira bertako ikasleak, gehienak 18-24 urte bitartekoak.

**Zein ondorio atera dituzu?**

Hainbat, baina baliteke deigarriena izatea gazteek, ikus-entzunezkoak (bideoak edo filmak) kontsumitzerakoan, denbora gehiago eskaintzen diotela telebistari interneti baino. Beti ere, kontsumo denborari begiratzen badiogu. Oso zabalduta dago gazteen artean internet gailendu dela, baina ez da egia gazteak telebistari bizkarra emanda bizi direla, horretan batere interesik ez dutela. Horregatik da deigarria.

**Youtube da munduan 3. webgunerik ikusiena. Telebista baino gehiago.**

Youtubek itzelezko ibilbidea egin du urte gutxian. Baina kanal moduan gaztea da. Beraz, esandakoak ez du esan gura egoera ez denik irauliko. Askotariko gustuak dituzte gazteek, bai edukiei bai horiek ikusteko moduei dagokienez, eta askotariko aukerak erabiltzen dituzte. Batzuek ez dute batere interesik telebistan eskainitakoarekiko eta paso egiten dute programazioaren menpe egote horregaz. Alde horretatik, youtube itzelezko aukera dute. Gazte batek tiek zioen lez: 'youtube da nire telebista'. Aldiz, beste batzuentzat oso erosoa da eguneko kontu guztiak amaitutzat eman ostean sofan jarri eta, ahaleginik egin barik, zer dagoen ikusi, zapping egin eta zerbait aukeratzea. Hori ere ohikoa da. Horrek ez du esan gura 10 urte barru beste era batera ez denik izango. Seguraski izango da, eta hori izan liteke etorkizuneko ikerketa ildo posible bat.

**Azken hamar urtean asko aldatu da gazteen artean ikus-entzunezkoen kontsumoa?**

Bai. Youtube 2005ean jaio zen. Duela hamar urte interneten ez zegoen hainbeste ikus-entzunezko eta banda zabala ere ez zen oraingoa. Kalitateari eta azkartasunari begira ez geunden orain gauden tokian. Horretan soilik itzela izan da bilakaera.

> *"Interneten dabilenak zer gura duen jakinda, zuzenean joko du horra"*

**Edukien aurrean hartutako jarrera ere ikertu duzu?**

Ikus-entzunezkoak telebistan kontsumitzen dituenak zein jarrera hartzen du gero ikusten duen horrekiko? Ez du partekatzen? Ez du sortzen? Aldiz, interneten dabilenak jarrera oso aktiboa du? Hori ikertu dut, eta ikusi dut denetarik dagoela. Zenbat buru hainbat aburu. Bide tradizionaletik nekez aurkitu ditzaketen edukiak aurkitzen dituzte euren kontsumoa interneten oinarritzen duten horiek: telebistan ez dagoena, oso garestia dena, berandu heltzen dena... Telesailak esate baterako.

**Zeintzuk dira internet edo telebista aukeratzeko arrazoiak?**

Erosotasuna eta erraztasuna dira aipatutako arrazoiak. Dena den, horretan oinarritutako hautuak oso desberdinak dira; batzuek telebista aukeratzen dute eta beste batzuek internet. Youtubeko harpidetzak telebistako edozein katetan egindakoak bezalakoak dira. Ezin dugu esan hedabideen arabera bat edo beste aktiboagoa edo pasiboagoa denik. Interneten dabilenak, zer gura duen jakinda, behin gustuko kanal edo youtuberra aurkituta, zuzenean joko du horra. Badaude ikerketak diotenak youtubek eta interneteko beste kanal batzuek ez ote dituzten telebistako egiteko erak eurenganatu. Kanalak badira modu bat kontsumitzaile lez bidea errazteko: alerta eta gomendioak ematen dituzte, eta suposatzen da nire gustuetatik abiatutako aukerak eskaintzen dizkidatela.

**Aukeratutako edukiak ala etorriak diren ere ikertu duzu?**

Bai. Zein neurritan kontsumitzen den propio aukeratutako edukia eta zein neurritan modu batera edo bestera eskainita iritsitako edukia. Telebistan eta interneten, bietan neurtu dut, eta ez dut alde handirik ikusi. Baliteke bilatzeko joera hori gehiago egotea interneten, baina ez oso modu nabarmenean.

**Partekatzeak ia %68ra heltzen dira gazteen artean. Datu esanguratsua al da?**

Bai, oso ohikoa da partekatzea. Beste kontu bat da maiztasuna. Horretarako gogoa da arrazoi nagusia. Erraza delako egiten dutela diote; bestela, ez luketela egingo. Sarean dagoena modu publiko edo pribatuan partekatzen duten moduan, esperientzia edo bideo propioak modu pribatuan partekatzen dituzte.

# JAIAK! ELORRIO 2017ko IRAILA





ELORRIXOKO FERIXA NAUSIKOAK: LIBREAK, ALAIAK ETA EUSKERAZ!

Elorrioko udala

INDARKERIA MATXISTARI EZ!

# ELORRIOKO JAIEN EGITARAUA

## Irailak 1, barikua

**Egun osoa** Aukeren azoka. Elizpean.

**18:00-21:00 Indarkeria matxista saihesteko informazio gunea**. Plazan.

**19:00 Olinpiadak** gazte proba. Plazan.

**00:00 Musika-jartzaileak**. Gaztetxean.

**23:00** GAZTE EGUNA **Kontzertuak** Txosnagunean
· **PURO CHILE ETA MAFALDA**

## Irailak 2, zapatua

**12:00-14:00 / 17:00-20:00 Haur parkeak.**

**12:30 Bitsaren jaia.** Esteibarlandan

**17:00 Areto-futbol partida**. Kiroldegian. Elorrioko Buskantza A – Zierbena FS

**18:30** Buruhandiak. Plazan.

**19:00** Durangoko Sugarri Fanfarria. Plazan.

**19:15** Egundo i – Kalez kale kantuan. Goiko aldetik hasita

**19:30** Banda de Gaitas del Patronato Municipal de Narón. Plazan.

**20:00**Txupinazoa eta pregoia: Buskantza FKE. Plazan.

**20:00** Olinpiadak Alaitasuna. Plazan.

**23:00** Danborrada eta Durangoko Sugarri Fanfarria. Plazan.

**23:00** Kontzertuak. Gaztetxean.
· **TALADRO 11**
· **PLAN B**

**00:20** Suzko zezena. Plazan.

**00:30** Durangoko Yakambú Orkestra. Urarkan

**11:30** Umeentzako ikuskizuna. Txosnagunean. Preso, iheslari eta deportatuen aldeko elkartasun eguna

**24:00** Txosnagunean
· **DJ MAP H**

## Irailak 3, domeka

**10:00 Abere eta nekazaritza azoka**. Feriagunean

**Goizean** Txistularien **kalejira**

**13:00 Asoc. cultural M'Lomp**. Senegaleko musika eta dantza. Plazan.

**18:00 Afizionatuen pilota partidak**. Hilario Azkarate frontoian

**18:00 Umeen danborrada**. Plazan.

**19:15 Cia. Píscore marinba** umore kontzertua. Plazan.

**22:15 Suzko zezena**. Plazan.

**22:30** Plazan.
· **SCARLETS & THE FEMME SOUL BAND**

**20:30 Tako mexikarrak**. Txosnagunean.

## Irailak 4, astelehena

**14:00 Kuadrillen arteko bazkaria eta tortilla lehiaketa**. Aldatsekuan
*Mahai eta aulki banaketa goizeko 9etatik aurrera.

**16:30** OLINPIADAK **jai berdeak**. Aldatsekuan.

**18:00 Kuadrillen jaitsiera eta Diskoteka mugikorra** bazkal ostetik. KALEJIRA

**18:45 Kuadrillen arteko jokoak**. Disko festa: DJ Tirapu eta Txurru. Plazan.

**19:00 Disei Opera Band**. Urarkan

**22:15 Suzko zezena.** Plazan.

**22:30 Los Otros** (60, 70, 80ko musika). Urarkan

**21:30** OLINPIADAK **Playbacka**. Txosnagunean.

**23:00** Txosnagunean.
· **DJ BULL**

## Irailak 5, martitzena

**12:00-14:00 / 17:00-20:00 Haur parkeak**

**18:00 Buruhandiak**. Plazan.

**19:00 Malas Compañías**, denontzako zirkua. Urarkan

## Irailak 6, eguaztena

**16:30 Umeentzako jolasak**. Plazan.

**17:00 Ginkana**. Plazan.

**18:00 Buruhandiak**. Plazan.

**18:00 Txokolatada**. Plazan.

**18:15 Ohorezko mailako triangeluar solidarioa**. Elizalden.
CD Elorrio- Castro FC – CD Vitoria

**18:30 Reziklator,** umeentzako animazioa. Plazan.

**18:00** 12-16 Urtekoentzako **Oreka Extrem**. Txosnagunean.

## Irailak 7, eguena

**22:00** LIII. Idi proba txapelketa. Probalekuan.

**22:00** Kontzertua: Gaztetxean.
· **I SENS & THE DIPLOMATIKS**

**18:00** OLINPIADAK **pintxo lehiaketa**. Txosnagunean.

**19:00 Pintxo dastaketa**. Txosnagunean.

**19:00 Euskal dantzak** Txosnagunean. Aterri bada, plazan egingo dira

## Irailak 8, barikua

**09:00 Elorrio zirkularra** (Plaza-San Anton-Aidazua-Iguria-San Jose-San Agustin-Plaza)

**11:30** Hildako jubilatuen omenezko **meza**. Sortzez Garbiaren Basilikan

**13:00 Kopaua Elorrioko jubilatuentzat**. Aldatsekuan

**16:00-20:00 Haur parkeak**

**Arratsaldez Areto-futbol partidak**. Kiroldegian
**17:00** Elorrioko Buskantza – Sasikoa Durango CD
**18:45** Elorrioko Buskantza B – Mondrate CD

**18:15 Lagunarteko triangeluarra**. Elizalde

**18:30 Duo Ciclón**. Erromeria eta dantza Txapelketa. Aldatsekuan

**19:00** OLINPIADAK **proba berezia**. Plazan.

**19:00 Lagunarteko partida**. Errugbi zelaian.

**19:00 Buruhandiak**. Urarkan.

**19:30 Cia. Up Arte denontzako zirkua**. Urarkan.

**21:00 Masa Coral del Ensanche,** zarzuela: Si las mujeres mandasen. Arriolan.

**22:00 Clásicos excéntricos** (musika klasiko dibertigarria). Urarkan.

**22:00 LIII. Idi proba txapelketa**. Probalekuan.

**22:15 Suzko zezena.** Plazan.

**23:30** Urarkan.
· **MARAVILLA GYPSY BAND**.

**23:30** Plazan.
· **KEN ZAZPI**

**00:00 Musika-jartzaileak**. Gaztetxean.

**18:00 Zumba**. Txosnagunean

**22:00 Sound System**: Euskal Dub etxea eta gonbidatuak. Txosnagunean

**1:00** Ken Zazpi amaitutakoan, berriro Sound System. Txosnagunean

## Irailak 9, zapatua

**8:00 Sukalki eguna**. Aldatsekuan
Zatoz mozorroa jantzita!
*Euria egiten badu, talde bakoitzak bere aterpea ekarriko du.

**Goizean 3R azoka**: reduce, reutiliza y recicla. Berrio-Otxoan

**12:00-14:00/17:00-20:00 Haur parkeak eta txu-txu trena** buzkantza kaletik

**17:00 Bentazaharreko mutiko alaiak**. Kalejira

**17:15 Gazteok Fanfarria**. Kalejira

**18:00 Karrozen jaitsiera**. Baskoson disko Festa. Aldatsekuan

**18:00 Txokolatada**. Plazan.

**18:00** OLINPIADAK **Mozorro lehiaketa**. Plazan.

**22:00 LIII. Idi proba txapelketa**. Probalekuan.

**22:15 Suzko zezena**. Plazan.

**22:30 Teatro La Cosa**, kalejira DE sua eta malabareak. Plazan.

**23:00 Tik-Tara**, Kubako musika euskaraz. Urarkan.

**23:00** Kontzertua. Gaztetxean
· **GORKA SUAIA ETA LAGUNAK**

**00:00** Txosnagunean
· **DJ TARANTISTAK**

## Irailak 10, domeka

**Goizean** "Elorrioko kulturak dasta ditzagun" **elkartasunaren jaialdia** Arriola kalean - San Pio

**13:00 Herri kirola.** Plazan
Alex Txikon, Julen Mendieta, Hodei Ezpeleta eta Bihurri aizkolariak, Joseba eta Udane Ostolaza harri-jasotzaileak eta Karlos Aretxabaleta Iparraldeko jokoekin.

**18:00 Bertso saioa:** Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Oihane Perea, Nerea Ibarzabal. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal. Casajaran

**19:30** Garden: Alos Quartet eta Aukeran dantza konpainia**.** Plazan.

## Irailak 11, astelehena

**22:00 LIII. Idi proba txapelketa**
Sari banaketa. Probalekuan

Beristain
NEKAZAL TRESNAK
Baso-lorazain eta baserriko tresnen salmenta, konponketa eta mantenua
946 231 803 www.beristain.eus
OIDOR BERRIOZABALBEITIA, 14 - ELORRIO

BIODANZA ELORRIO
ASTEARTETAN
Txintxirri Ikastola
18:45 - 20:45
bio dantza bai
Bideratzailea:
Mentxu Arjonilla
Irakasle tituluduna
626 661 292
mentxubiodanza@hotmail.com



# Kuadrillen arteko olinpiadak jaietako nobedadeen artean

## Jaien inguruko prozesu parte-hartzailea egin dute, eta gogoeta horretatik olinpiadak antolatu dituzte

**> JAIAK** Jone Guenetxea

Ferixa Nausikoetako jaiak atejoka daude. Bihartik hasita irailaren 10era bitartean jai-giroa izango dute elorriarrek. Aurten, jaien zenbait alderdi birplanteatu dituzte udaberri eta uda artean izandako prozesu parte-hartzailearen ondorioz. “Jai euskaldunak, anitzak, parte-hartzaileak, alkoholean oinarritzen ez diren ekintzekin, jasangarriak, bertokoak eta parekideak gura ditugula nabarmendu da prozesuan. Ez da erronka makala, baina dagoeneko norabide horretan bidea hasi dugu eta jai egitarauan lan mardula egin dugu herriko elkarte eta herritarrekin batera”, azaldu du Idoia Buruaga alkateak.

Irailaren 2an jaurtiko dute Elorrioko Buskantza taldekoek txupina. Hala ere, jaien aurrerapen moduan, barikurako hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Aukeren Azokaz gain, Gazte Eguna ospatuko dute. Besteak beste, bazkaria, txosnen irekiera eta kontzertuak izango dituzte egun guztian zehar. Gainera, aurten, berrikuntza legez, Ferixa Nausikoak birplanteatzeko prozesuaren emaitzetatik Kuadrillen arteko olinpiadak antolatuko dituzte. Bederatzi probaz osatuko dira olinpiadak, eta, horretarako, kuadrillek gutxienez sei pertsonako taldeak antolatu beharko dituzte. Patata-tortilla txapelketa, asteleheneko jolasak, playback-a zein mozorro lehiaketa izango dira probetako batzuk. 16 urtetik gorako gazteek parte hartu ahal izango dute.

**Indarkeria matxista saihesteko informazio gunea atonduko dute**


Gazte Eguna ospatuko dute, gaur, txosnagunean.

Udal ordezkarien prentsa oharrean azaldu dutenez, kale ekitaldi ibiltari gehiago eskaintzeko ahalegina egin du Jai Batzordeak. Izan ere, musika eta antzerkia plaza ingurutik herriko beste espazio batzuetara zabaldu gura izan dituztela aurreratu dute.

### Jai parekideen alde

Jai parekideen alde, udalak lanketa berezia egin duela azaldu du Idoia Buruaga alkateak. Irailaren 1ean, esaterako, indarkeria matxista saihesteko informazio gunea atonduko dute plazan, 18:00etatik 21:00etara bitartean. Gainera, eraso sexisten kontrako jarrera aktiboa bultzatzeko txapak eta kartelak banatuko dituzte, eta jai egitarauan gomendioak azaldu dituzte. Era berean, erasoen aurkako protokoloaz gain, 24 orduz eskuragarri izango den telefono zenbakia jarri dute herritar guztien eskura: 688 641 996.



Arregik hirugarrenez irabazi du jaietako kartel lehiaketa.

# “Jaietan denontzako lekua dagoela islatu gura izan dut kartelean”

**> KARTELA** Jone Guenetxea

**Maialen Arregi Ganboa (Elorrio, 1986) arkitektoak diseinatutako irudiak irabazi du udalak aurtengo Ferixa Nausikoetarako antolatutako kartel lehiaketa.**

**Sorpresa izan da Ferixa Nausikoetako kartel lehiaketa irabaztea? Hirugarrenez irabazi duzu...**

Aurkeztu nuen lanagaz gustura gelditu nintzen. Baina, aurtengo edizioan 13 kartel aurkeztu dira, eta batzuk onak izan dira. Beraz, epaimahaiaren erabakia subjektiboa izaten denez, zer gertatuko den ezin da sekula jakin. Azkenean, irabazi egin dut eta pozik nago.

**Zertan inspiratu zara?**

Elorrioko jaiak Ferixa Nausikoak dira. Feria bera animaliekin islatu gura izan dut, baina baita jaiak egiten ditugun pertsonokin ere. Kartelean ez da ondo bereizten pertsonak animalia mozorrotuta edo animaliak pertsona mozorrotuta dauden. Jaia gauza hauen guztien nahastea dela irudikatu dut. Txantxibiri abestiak dio atsoak asto gainean doazela. Kartel honen bidez, edozein pertsona jaietako astora igo daitekeela islatu gura izan dut. Hau da, jaietan denontzako lekua dagoela.

**Zer sentitzen da jaietan kartela alde guztietan ikustean?**

Gustukoa da. Pentsatzen dut Elorrioko historiarako ekarpen hori hor gelditukodela. Agertuko da nonbait urteren batean, kaxaren batean, norbaiten etxean.

ESTETIKA eta TATTOO ZENTROA
aneK ESTETIKA TATTOO
San Juan kalea, 23 behea 3
Tel.: 944 008 846 · anekestetika@gmail.com

AXA reinventando / los seguros
AMALUR ASEGURUAK, S.L.
amalur.aseguruak@agencia.axa.es
www.amalur.agenciaaxa.es
AXA ELORRIO
Berrio-Otxoa, 4 ELORRIO
946 584 703
AXA DURANGO KURUTZIAGA
Kurutziaga, 26 DURANGO
946 816 022

SERIGRAFIA BOROBIL TEXTIL ELORRIO
Berriozabalbeitia, 6
Tel.: 946 820 532
art-SHirt
Kale Kamiak diseinu bakarrak
Tel.: 658 756 522

Ereka 20 arkitektura
Silvia Urrutxi Arkarazo
Errekakale 20, 2. A - Elorrio
Tel 946 231 847
699 356 607
646 955 778

# FERIXA NAUSIKOAK 2017

## TABERNAK eta JATETXEAK
























# “Denboraren abiadura horrek ez harrapatzeko intentzio oso argia daukagu”

Ken Zazpik etena egingo du, eta horren aurretik zuzenean ikusteko aukeretako bat da Elorriokoa

> **MUSIKA** Markel Onaindia

**Etenaldi batek bertigoa ekarri dezake, baina emozio berriak sortu ere bai. Horretara doa Ken Zazpi laster, arnasa eta deskantsua hartzera, ezer lotuta eduki barik. ‘Phoenicoperus’ diskoaren bira amaitu eta laburra izango ez den eten bat egingo dute gernikarrek. Azken kontzertuetan murgilduta daude, eta Elorrion izango da emanaldi berezi horietako bat. Eñaut Elorrieta abeslariak eman du euren sentsazioen berri telefonoaren bestaldetik.**

**Irailaren 8an zatozte Elorriora. Zelako zuzenekoa izango den aurreratzerik bai?**
Gure garai guztietako kantuak bilduko dituen kontzertu bat izango da. Bestalde, azken urtetan, kontzertuetan irudiak eta proiekzioak lantzen gabiltza, kantuen arima indartzeko asmoz, eta hori guztia Elorriora ere eramango dugu. Bira amaitzen gabiltza; kontzertu honen ostean geratu egingo gara, eta ez dakigu noiz arte izango den. Horregatik, azken kontzertu hauek gure ibilbidearen errepaso izatearen espirituagaz garatzen gabiltza.

**Etenaldi hori etorkizuneko erronkak argituta ala argitu barik egingo duzue?**
Hurrengo proiektu bat egongo bada, deskantsu bat behar dugula uste dugu, arnasa hartzea. Sentsazioa dugu gaur egun oso iraupen gutxi dutela proiektuek. Denboraren abiadura horrek ez harrapatzeko intentzio oso argia daukagu; merkatuaren inertzia edo epeetara behartuta sentitzerik ez dugu gura, eta erritmoa geuk kontrolatzea gura dugu. Guretzat ilusionantea izango den proiektu bat sortzeko denbora behar dugula sentitzen dugu. Gainera, ez

**“Ken Zazpi esperimentazio zentro bat da guretzat”**

**“Zauriak, minak eta hutsuneak osatzeko bide bat da kantua”**

gara kapaz bira batean sartuta egon eta aldi berean hurrengo proiektuan pentsatzeko. Ez da geldialdi laburra izango. Zerbait ilusionantea sortuz gero, bada, etorriko da, baina ez dakigu bira bategaz, disko bategaz edo beste zerbaitegaz bueltatuko garen.

**Musikalki estankatzeari beldurra diozuela entzun izan dizut. Baina esango nuke jakin izan duzuela eboluzionatzen.**
Ken Zazpi guretzat esperimentazio zentro bat izan dela esaten dugu beti taldekideok. Diskoekin irabazi dugun diruaren gehiena hurrengoetan inbertitu dugu, eta horrela joan gara kanpora grabatzen edo hainbat produktoregaz lan egiten. Ikasketa prozesu bat izan da, gure burua erronka baten aurrean ipintzearen irrikaz. Horrek mugitu gaitu, esploratzeko gogoak. Nire ustez, horrek ekarri du diskotik diskora salto batzuk egotea, eta hainbeste urtean bizirik eta ilusionatuta egotea ere bai.



Eñaut Elorrieta, erdian, bere taldekideekin batera.

**20 urte dira lehen kantua sortu zenutenetik. Kontziente zarete egindako guztiaz?**
Egia esan, gure bizitza izan da, elkarregaz egin dugun bide bat. Gutxi gorabehera, gure nerabezaroko lehen esperientzia musikalen ostean sortu genuen Ken Zazpi, eta urte piloa dira. Batzuetan ez da erraza kontziente izan eta baloratzen jakitea, baina, adibidez, zurea bezalako galderak entzuterakoan, barruan emozio bat sortzen zait. Gustatzen zaiguna egin dugu, lan handia egin dugu, eta fruitu piloa eman digu.

**Zuen letrak sakonak eta melankolikoak izan ahal dira, baina esango nuke jendeak alaitasunetik entzuten duela Ken Zazpiren musika.**
Batzuetan kezkatik berba egin genezake, tonu ez oso alai bategaz, baina kantua zauriak, minak edo hutsuneak osatzeko bide bat da guretzat. Uste dut espiritu hori hartzen duela kantuak berak.

Elizburu, 46-48
Tel.: 94 682 10 79
Tel./Faxa: 94 682 00 50
ELORRIO (Bizkaia)
ALBAÑILERIA
KURUTZONDO S.L.

Zaindu albaitaritza
ALBAITARITZA KLINIKA
www.zaindu.net
Ibarra, 13 - ELORRIO
Tel.: 946 820 494
zaindu.albaitaritza

INMOBILIARIA ETXELAN
PROFESIONALTASUNA + SERIOTASUNA = KONFIANTZA
GURE HERRIKO INMOBILIARIA, ZURE KONFIDANTZAKO INMOBILIARIA
JAI ZORIONTSUAK IZAN!
Nizeto Urkizu 12, behea - ELORRIO - Bizkaia
Tel.: 94 655 03 58 - www.inmobiliarietxelan.com

# “Buskantza taldeak dagoeneko 315 bazkide egitea lortu du”

Maila igoerari aurre egin ahal izateko, Elorrioko areto-futbol taldeko arduradunek bazkidetza eta babesle kanpaina jarri dute martxan



Astarloa, Arregi eta Urtueta udaletxeko balkoian.

> TXUPINAZOA Jone Guenetxea

**Buskantza areto-futbol taldeko jokalarien txupinazoak emango die hasiera ofiziala jaiei. Jokalariek ilusioz hartu dute jaien hasierako ardura hori. Buskantza 2.B mailara igo da, eta horrek eragingo dituen aldaketen berri herritarrei emateko, txupinazoa aukera ezin hobea dela diote taldeko arduradunek. Izan ere, maila horretako partiduetan derrigorra da sarrera kobratzea eta bazkidetzak egitea. Era berean, nesken taldean lau jokalari gelditu direla-eta, Durangoko taldeagaz batuko dira. Hala ere, datorren urtera begira jokalari gehiago animatzea eta Elorriok bere nesken talde propioa izatea dute helburu.**

**Txupinazoa jaurtitzeko berria pozik hartu duzue?**
**Iñigo Astarloa**: Oso pozik, gustura. Gainera, orain 2.B mailan jokatuko dugu, kategoria oso altua da eta uste dut merezi dugula.
**Unai Arregi:** Aukera ona izango da taldearen berri herrian zabaltzeko.

**Nork botako du txupinazoa?**
**Iñigo Astarloa**: Joan zen denboraldian nesken taldean kapitain izan zen Garazik eta biok jaurtiko dugu txupinazoa.

**Iñigo, zu noiz etorri zinen Elorriora jokatzera?**
**I.A.**: Hamar urte Durangoko taldean egon nintzen jokatzen. Ondoren, Elorrion taldea sortu zen, eta hona etorri nintzen. Taldea beti egon da maila onean jokatzen. Sasoi onetan, jubenilak, B, C, A taldeak eta nesken taldea izan ditugu.

**Nesken taldeagaz zer gertatu da?**
**U.A.**: Aurten lau jokalari gelditu dira, eta Durangoko taldeagaz batu dira.

**Garazi, noiz hasi zinen taldean jokatzen?**
**Garazi Urtueta:** Orain hiru urte neska batzuk batu ginen, eta taldea sortzea erabaki genuen. Zuzendaritzaren aldetik babes handia jaso genuen. Lehenengo, Iñigo izan genuen bi urtez entrenatzaile, eta iaz, Gaizka. Aurten ez dugu lortu jendea animatzea eta Durangogaz batuta taldea sortu da. Lanagaz eta ikasketekin zaila izaten da taldea mantentzea. Hala ere, aurreko denboraldian talde moduan ondo jokatu dugu eta pozik ibili gara.

**Garazi Urtueta: “Durangogaz batuta nesken taldea osatu dugu”**

**Iñigo Astarloa: “Garazik eta biok jaurtiko dugu txupinazoa”**

**Nesken taldea berpiztea datorren urterako helburuetako bat da?**
**G.U.**: Bai, aurten ez dugu astirik izan jendea nesken taldean jokatzera animatzeko, eta Durangogaz jokatuko dugu. Hala ere, helburua datorren urtean Elorrion talde propioa izatea da. Beraz, txupinazoa jaurtita, ea neskak animatzen diren.

**Buskantza 2.B mailara igo da. Horrek zer suposatuko du taldearentzat?**
**I.A.**: Zaragoza, Guadalajara, Castelló eta horrelako lekuetara bidaiatu beharko dugu.
**U.A.**: Gastu handia suposatuko du. Garraio gastuak asko igotzen dira, arbitroen lana erdi bana ordaindu beharko dugu...

Galdaragintza
Forja artistikoa
Enpresen mantentzea
EZAGUN, S.L.
Berriozabalbeitia, 10
Tel: 946 584 547 - Faxa: 946 582 888
48230 ELORRIO (Bizkaia)
ezagunsl@ezagunsl.e.telefonica.net
Eugenio Sanchéz
Agustin Urien

EIBAR
Olabarria
AUTOBUSAK
Betsaide Kalea, 11 - ELORRIO
946 231 647 - 607 410 621

CUMENOR
• Obra berria eta eraberritze integralak eraikinetan eta nabeetan
• Eraberritzeak estalki eta fatxadetan
• Obra proiektuak igogailuen instalaziorako eta arkitektura-oztopoak kentzeko
• Obren konponbideak komunitateetarako
• Lokalak gaitzea
• Urbanizazioak
• Mota guztietako obra eta proiektuak
INFORMAZIOA ETA AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE
Ibaizabal k/ 1- 48260 Elorrio Bizkaia
info@cumenor.com - www.cumenor.com
Tel.: 946 215 677
Faxa: 946 462 931

NUKLEO
ileapaindegia
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO
Tel.: 946 582 996

AZKARGI GARBIKETAK
AUZO ELKARTE, GARAJE ETA OBRA OSTEKO GARBIKETAK
Goieta, 46 - 2 esk.
ELORRIO
Tel.: 615 791 215

ARKI TEK SAN
WWW.ARKITEKSAN.COM
622 745 419
NIZETO URKIZU 12, ELORRIO
INFO@ARKITEKSAN.COM
EITE AZTERKETA 259€TIK AURRERA!

Argiñeta
HIRIGINTZA ETA INMOBILIARIA BULEGOA
Zure konfiantzazko inmobiliaria
Urarka, 1 - 48230 Elorrio
Tel.: 946 820 041
Faxa: 946 231 630
argineta@euskalnet.net
www.argineta.net

MAPFRE
Pili Ardanza - Jon Zubia
30 urte baino gehiagoko esperientzia
Bezero bakoitzaren perfilera egokitzen gara profesionaltasun eta diskrezioz
Kanpokale, 10 ELORRIO
Tel.: 94 658 24 48
pardanz@mapfre.com
www.mapfre.com/oficinas/4838

**Zuzendaritzan egonda, gastu hauei zelan egingo diezue aurre?**
**U.A.:** Babesle bila ari gara inguruko enpresa eta tabernetan, gastu hauek finantzatu ahal izateko.

**Bazkidetza kanpaina bat ere jarri duzue martxan. Zein erantzun jaso duzue herritarrengandik?**
**U.A.**: Dagoeneko 315 bazkide egitea lortu dugu. Txupinazoa jaurtitzea oso ona izango dela uste dugu, herritarrek gure ekimenen berri izan dezaten. Oihartzun handia izango dugu, eta hori baliatzea garrantzitsua da.

**Zelan ikusten duzue taldearen etorkizuna? Ilusioa sumatzen duzue?**
**I.A.**: Iker entrenatzaileak ikaragarri bizi du areto-futbola, eta, hein handi batean, berak dauka arrakasta honen errua.
**U.A.:** Bi talde indartsu ditugu eta, etorkizunera begira, baikorra naiz.
I.A.: Aurten jubenilen taldea ez dugu atera, ez dugulako fundamentu handirik ikusi denboraldi berrira begira. Ez dugu beraien eta gurasoen aldetik konpromisorik ikusi. Hala ere, aurrera begira, talde hori sortzeko ateak zabalik daude.

**Unai Arregi: "Zuzendaritzan pozik ari naiz lanean"**

**Unai Arregi: "Igoera zaila izango da, baina ilusioa dugu"**

**Talde batzuetan zuzendaritzako lana egiteko jendea aurkitzea zaila izaten da.**
U.A.: Niri lan hori egitea gustatu egiten zait. Pozik ari naiz lanean.

**Maila aldaketak kudeaketan ere eragingo du. Orain sarrera kobratzera derrigortuta egongo zarete.**
2.B mailan sarrera kobratzea eta bazkideak izatea derrigorrezkoa da. Beraz, garrantzitsua da jendeari jakinaraztea maila igoeraren eraginez izango dela. Badakigu igoera zaila izango dela, baina ilusioa dugu eta aurrera egiteko gogoz gaude.



2.B mailan jokatuko du Buskantzak.


Urteko bazkarian ateratako argazkia.




# Elorrioko hamabi ekoizle egongo dira domekako azokan

Aurten produktu ekologikoei bultzada bat emango diote Ferixa Nausikoetan



10:00etan irekiko ditu ateak Ferixa Nausikoetako azokak.

**> AZOKA** Maialen Zuazubiskar

Nekazarien, abeltzainen eta artisauen eskutik kalitate goreneko produktuak dastatu, usaindu, ikusi eta erosteko aukera eskainiko du, beste urte batez, Elorrioko Ferixa Nausikoetako azokak. Irailaren 3an, 10:00etatik 14:30era egongo da azoka bisitatzeko aukera.

Elorrioko nekazariek hazitako ortuariak, Elorrion egindako gazta, ogia, txakolina, gozoak, eta txerrikiak, zein Elorrioko artisauek paperagaz eta zuragaz egindako bitxiak, larruzko oinetakoak eta panpinak ere eskuragai egongo dira domekako azokan.

### Durangaldeko ekoizleak

Elorrioko nekazari, abeltzain eta artisauez gainera, Durangaldeko eta Euskal Herriko beste hainbat ekoizlek ere parte hartuko dute domekan egingo den azokan: Berrizko hainbat nekazarik, Mallabiko, Otxandioko eta Abadiñoko zenbait gaztagilek, Iurretako, Mallabiko eta Mañariko okin eta gozogileek, Iurretako txakolingile batek eta Zornotzako eztigile batek, hain zuzen ere.

**Aurten produktu ekologikoen inguruko postua jarriko dute**

**Nekazarien 55 postu egongo dira hilaren 3ko azokan, Elorrion**

Hauen produktuez gain, Berrizko, Atxondoko eta Durangoko artisauen lanak ere eskuragai egongo dira Elorrion.

Azokan egongo diren hainbat postu eskualdekoak izango diren arren, Gipuzkoako, Nafarroako, Arabako eta Bizkaiko beste hainbat txokotatik ekarritako produktuak ere izango dira Ferixa Nausiko jaietako azokan.

### Produktu ekologikoak

Aurtengo azokan azken urteetan baino bost postu gutxiago egongo diren arren, produktu ekologikoei bultzada bat eman guran produktu ekologikoen inguruko informazio postu bat jarriko dutela jakitera eman du Maitane Lopez zinegotziak. “Postu ekologikoei bultzada bat eman gura genien, eta, horregatik, Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak (EHNE) duen kontainer ekologikoak lekua izango du aurtengo azokan”, adierazi du Lopezek.

Hori horrela, domekako azokan nekazarien 60 postu egon beharrean, 55 postu eta kontainer ekologikoa egongo direla jakitera eman dute.

Azoka 10:00etatik 14:30era arte egongo da zabalik, eta Elorrioko txistulari taldearen kalejirak ipiniko dio doinua goizari.

# Bederatzi kulturatako jakiez gozatzeko aukera, hilaren 10ean

Arriola eta Kanpokokale kaleen arten egingo dute Kulturarteko jaia

**> JAIAK** Maialen Zuazubiskar

Kainabera Gobernuz Kanpoko Erakundeak, urtero lez, kultura arteko jaia antolatu du Elorrioko jaietako bigarren domekarako. 20 urtez mundua aldatzeko esperantzagaz lanean dabiltzan boluntarioek herrian dauden kulturei tokia egin gura diete beste urte batez.

Iaz lez, Arriola eta Kanpokokale kaleen artean egingo duten jaian bederatzi herrialderi egingo diete lekua.

Aurtengoan, Euskal Herriko jakiak probatzeko aukera egoteaz gain, Boliviako, Indiako, Kolonbiako, Maliko, Mexikoko, Portugalgo, Senegalgo eta Uzbekistango janariak dastatatzeko aukera egongo da.

**Zaporeak elkarteari bideratuko diote batutako dirua**

Jaki ezberdinak dastatzeko aukera egoteaz gain, jai honegaz herritarren arteko hartu-emanerako lekua egoten dela adierazi dute Kainabera elkarteko kideek.

### Babesa Zaporeak elkarteari

Bestalde, azken urtean bezala, aurten ere errefuxiatuentzako jatorduak prestatzen lanean dabilen Zaporeak elkartera bideratuko dute Kulturarteko jaian batutako dirua Kainaberako kideek. “Ederra izan zen janariagaz zerikusia duen ekimen baten bidez Greziako Chios irlako errefuxiatuentzako jatorduak prestatzeko laguntza lortzea”, aitortu dute kulturarteko jaiko antolatzaileek.

Egunean ehunka errefuxiaturentzat jatekoa prestatzen ibiltzen diren Zaporeak elkarteko kideak ere Elorrion izango dira irailaren 10ean. Zaporeak elkarteko boluntarioek beraien egunerokoan egiten duten lanaren berri emango diete Kainaberak antolatutako kulturarteko jaira bertaratzen direnei.



Jaietako bigarren asteburuan ospatzen dute Kulturarteko jaia.



Jai-giroa izaten da nagusi Kulturarteko jaian.



# JAIAK!

## IZURTZA
2017ko IRAILA






# IZURTZAKO JAIEN EGITARAUA

**Irailak 1, barikua**

**20:00 Txupinazoa eta trikipoteoa**.

**23:00 Kontzertua** Gaztelekuan.

**Irailak 2, zapatua**

**12:00 Marmitako lehiaketa.**

**13:30 Enkartelada.**

**14:30 Plateren aurkezpena.**

**15:00 Herri bazkaria.**

**18:00 Bingoa.**

**Irailak 3, domeka**
SANTA AGEDA

**10:00 Kalejira JAIZALE**-gaz.

**11:00 Meza** Santa Ageda baselizan.

**12:00 Mendigain Dantza Taldea**.

**14:30 Bertso bazkaria**:
Onintza Enbeita eta Eneko Abasolo.

**16:30 Txoborro Magoa**

**18:30 Lotxo** taldea

**Irailak 8, barikua**

**11:00 Meza** Erdoitzako baselizan

**12:00 Mendigain Dantza Taldea**

**16:00** Umeentzako **jolasak**

**17:30 Kontu Kontalariak**
"Berdinbidean Bizkaia 2017"

**Irailak 9, zapatua**

**9:30 XXVI Mendi Bizikleta Martxa**

**18:00 Igel Txapelketa**

**19:00 Tortilla Txapelketa**

**20:30 Tortillen aurkezpena**

**21:30 Afari herrikoia**

**23:00 LUHARTZ** taldea

**Irailak 10, domeka**
SANTO TOMAS

**10:00 Kalejira** JAIZALE-gaz

**11:00 Meza** Santo Tomas baselizan

**12:00 Mendigain Dantza Taldea**

**12:30 Bertsolariak**:
Manu Goiogana eta Oihana Iguaran

**13:30 Gorriti eta bere abereak**

**14:00 Jubilatuen bazkaria**

**17:00 Mus txapelketa** Argintxu Elkartean

**Izurtzako jaiak III. Argazki lehiaketa**
Oinarriak udaletxean eta web-orrian




FOSECO
GALDAKETA ETA SIDERURGIARAKO PRODUKTUAK
Foseco Española, S.A.
Elizalde azuza, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)
Tel. 94 620 25 00 / Faxa. 94 620 37 73
115 Posta Kutxa - 48200 Durango (Bizkaia)
VESUVIUS

# Dantzariek eta bertso bazkariak girotuko dute lehenengo domeka

Onintza Enbeita eta Eneko Abasolo 'Abarkas' arituko dira bertsotan



Mendigain dantza taldeak saioa eskainiko du domekan, 12:00etan, Santa Ageda ermitaren inguruan.

> **JAIAK** Joseba Derteano

Izurtzako jaietan herrigunearen besteko protagonismoa izaten dute hainbat auzok eta ermitak. Santa Ageda ermitaren inguruko egun-pasa da horietako bat, domeka honetan bertan izango dena. Ohi duten moduan, Jaizaleren txistu eta trikitixa doinuek lagundutako kalejiragaz egingo dute ermitarainoko bidea, goizean, eta jaietako ekitaldi denak ermitaren inguruan izango dira.

**Luhartz taldeak erromeria eskainiko du hilaren 9an**

Bertso bazkaria berreskuratu dutela da aurtengo nobedadea. Azken aldietan, bertso saioa izaten zen lehenengo, eta bazkari herrikoia ostean. Aurten bi ekimenak uztartzea erabaki dute, orain urte batzuk egin zuten moduan. Onintza Enbeita eta Eneko Abasolo 'Abarkas' ibiliko dira bertsotan 100 bat lagunen aurrean. Ostean, Lotxo taldearen erromeriagaz agurtuko dute eguna.

### Marmitako txapelketa

Jaietako beste nobedade bat zapatuko marmitako txapelketa da. Freskotasuna emateko, urtero lehiaketaren tematika aldatzen dute. Iaz, esaterako, munduko edozein plater prestatzeko aukera izan zen, eta parte-hartzaileak platerearen jatorriko jantziekin mozorrotzera gonbidatu zituzten.

Irailaren 9ko zapatua ere ez da nolanahikoa izango. Iaz 100 parte-hartzailetik gora batu zituen mendi bizikleta martxaren ostean tortilla txapelketa egingo dute, eta eguna Luhartzen erromeriagaz errematatuko dute.

# Santo Tomas eguna ospatuko dute 10ean

Goiogana eta Iguaran bertsotan arituko dira

> **JAIAK** J.D.

Herrigunetik urrun samar dago Santo Tomas ermita, baina hori ez da oztopo urtero-urtero jaietako bigarren domekan ermita ingurua jendez betetzeko. Tradizioari eutsiz, Mendigain dantza taldeak saioa eskainiko du mezaren ostean. Ondoren, bazkaritara batu aurretik bertso saioa eskainiko dute Manu Goiogana eta Oihana Iguaran bertsolariek.

Ermitaren ondoan dagoen aterpe batean jan-edana eskaintzen dute urtero. Iaz Durangaldeko Angelman sindromearen inguruko elkarteak kudeatu zuen barra. Esperientzia ona izan zutela-eta, aurten errepikatzea erabaki dute elkarteko kideek.



Mezaren ostean jan-edanerako aukera egoten da.

# 100 euroko saria jaietako argazkirik onenarentzat

Bigarren eta hirugarren sariak ere banatuko dituzte

> **JAIAK** J.D.

Argazkilaritza gustuko dutenek euren afizioagaz sos batzuk irabazteko aukera izango dute Izurtzako jaietan. Aurten hirugarren aldia egingo duen argazki lehiaketak 100 eurogaz sarituko du irabazlea, 75 eurogaz bigarrena eta 50 eurogaz hirugarrena. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ditzake eta oinarrietan zehazten diren datuekin batera (*www.izurtza.net* webgunean ikusgai) irailaren 29a izango da gutunazala udaletxera eramateko azken eguna. Izurtzako Kultura Batzordeak eta Jai Batzordeak osatutako epaimahaiak urriaren azken astean jakinaraziko du irabazleen zerrenda.

### Argazkiekin erakusketa

Abenduaren 6an, gazta, ardoa eta ogia produktu nagusiak izaten dituen azokan erakusketa egingo dute aurkeztutako argazki guztiekin. Plaza ondoko jubilatuen lokala erabiltzen dute erakusketa atontzeko.













# JATETXE GIDA



## PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4 DURANGO
**Tel.: 946 030 300**
**www.plateruena.eus**
Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.



## OLAJAUREGI JATETXEA

Kurutziaga Kalea, 52 DURANGO
**Tel.: 946 200 864**
**www.olajauregi-jatetxea.com**
Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egunero zabalik.



## KANBIO JATETXEA

San Migel Dudea auzoa, AMOREBIETA-ETXANO
**Tel.: 946 730 033**
Aste bitarteko menua, asteburuko menua, menu berezia eta karta.



## KOBIKA JATETXEA

San Ignazio, 8 DURANGO
**Tel.: 946810 003**
Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.



## IKUSPEGI JATETXEA

Goiuria,12 IURRETA
**Tel.: 946 811 082**
**www.ikuspegi.com**
Sukaldaritza tradizionala autore sukaldaritza ukituarekin.
Durangaldeko ikuspegi ederrak.




## IBARRA
## SAGARDOTEGI-GARAGARDOTEGIA

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA
**www.ibarra-sagardotegi.com**
**Tel.: 946 731 100**

**20. urteurrena**. Orain garagardotegia eta sagardotegia; menu ezberdinak. Gure upategian egindako sagardoa. Astean zehar soilik erreserbentzako zabaltzen da.




## Anbotorenlagunak

Ibarra Sagardotegi-Garagardotegiaren eskutik bi pertsonentzako menua zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean. Hile honetako irabazlea: **Iñaki Iturrikastillo Ugalde**

ZORTE ON!

Kultura

**Aitor Agirre Gimenez** (Berriz, 1975) | **Musikaria** (Eta Zer, Ene Bada eta Betagarri taldeetako kide ohia)


Betagarrik Hatortxu Rock jaialdian jo zuen azkenengo kontzertuko irudia. Saioa Gauilunak

# “Taldekideok lagunak gara; harreman hori ez da etengo Betagarri amaitu arren”

Betagarri taldean 17 urtez bizi izandako esperientziez dihardu, besteak beste, Agirre berriztarrak

> MUSIKA Itsaso Esteban

**14 urtegaz Eta Zer taldeko lagunekin musikan hasitako bideak 17 urtez Betagarri taldean jotzera eraman du Aitor Agirre berriztarra. Hatortxu Rock jaialdian, uztail amaieran, eskaini zuen Betagarri taldeak azken kontzertua.**

**Duela hilabete egin zenuten Betagarriren agur kontzertua Hatortxu Rocken. Zer moduz joan zen emanaldi hura?**
Egin dugun ia bi urteko geldialdiaren ostean, oso polita izan zen berriro elkarregaz jotzea. Oso argi geneukan erarik naturalenean joan gura genuela, ez genuela agurraren kontua luzatzen ibili gura... Egin dugun bezala, zarata askorik egin barik joan gura genuen.

**Sentikortasun handiko kontzertua izango zen, ezta?**
Gauza asko mugitu zitzaizkigun barruan, bai! Urte asko izan dira, hamaika esperientzia, bira luzeak... Lagun pilo bat etorri zen kontzertura, eta nabari zen egun berezia zela. Oso pozik geunden. Taldekideok lagunak gara, eta harreman hori ez da etengo Betagarriren ibilbidea amaitu arren. Kontaktu estua mantentzen dugu. Elkarregaz zuzeneko gehiago ez dugula egingo, hori da aldatuko dena...

**Zerk eraman zintuzten duela bi urte geldialdia egitera?**
Orain taldea desegiteko erabakia hartu dugun moduan, erarik naturalenean erabaki genuen atseden hartzeko eta gogoeta egiteko denbora hartzea duela bi urte. Deskantsatzea behar genuen. Taldea artistikoki oso indartsu egon da azken unera arte, baina aro berri bati ekiteko gogotsu geunden taldekideok, eta horregatik hartu dugu taldea desegiteko erabakia.

> *“Aro berri bati ekiteko gogotsu gaudelako erabaki dugu Betagarri desegitea”*

**24 urtean lehenengoz egon da taldea geldi azken bi urteetan?**
Bai. Gogoratzen dut duela hamabost urte inguru bi hilabetez geldi egon ginela, baina orduko hartan ez genion utzi entseatzeari, grabatzeari, eta talde batean jotzeak dakarren lan guztia egiteari... Taldea guztiz utzi dugun lehenengo aldia izan da.

**Japonian, Argentinan eta Europako herrialde askotan jo duzu Betagarrigaz. Zer bidaia gogoratzen dituzu gehien?**
Oso politak izan ziren Argentinakoa, Estatu Batuetakoa... Europan eskainitako asko... Ordu asko egin ditugu errepidean, eta lan handia dago horren guztiaren atzetik... Edozelan ere, guk beti oso gustura egin dugu. Gustuko tokian aldaparik ez!

> *“Musikoterapia saioak egiten ditut musika eskoletan eta 3. adinekoen egoitzetan”*

**Horrelako birak egin ahal izateko, erabateko dedikazioa eskaini diozue taldeari?**
Urte gehienetan honetan jardun gara buru-belarri, erabateko dedikazioagaz, bai. Bestela, ezinezkoa litzateke. Egin izan ditugun birak beste lan bategaz konbinatzea oso zaila litzateke.

**Taldeak eraman zintuen Araban bizitzera?**
Hasieran aurrera eta atzera ibiltzen nintzen, edo taldekideen etxeetan geratzen nintzen... Azkenean, bizitzak Araba aldera ekarri ninduen.

**Taldeari lotuta, zer oroitzapen gordeko duzu betirako?**
Hamaika izan daitezke, baina ez nuke jakingo bat nabarmentzen. Jo dugun herri guztien izenak ez ditut gogoratuko igual, baina zapaldu ditugun eszenatokirik gehienak akorduan ditut.

**Betagarriren aroa amaitu arren konposatzen jarraitzen duzu?**
Bai, noski, beti bezala jarraitzen dut konposatzen. Nire izaeraren parte da, behar dut gitarra hartu eta sortzea. Baina horrek nora eramango nauen ez dakit, eta planteatu ere ez dut egiten...

**Nerabea zinenetik musika talderen batean ez zabiltzan lehenengo aldia da hau?**
Horrela da, bai. 14 urtegaz hasi nintzen, Eta Zer taldean. Gero Ene Badan aritu nintzen, Betagarrin 17 urtez... Duela bi urte geldialdia egin genuenean oso arraroa egin zitzaidan abuztuan oporrak izatea, adibidez. Kontzertu gehien izaten den sasoia denez, ez nekien hori zer zen... Gogoan dut gaztetan nahiago izaten genuela udan oporretan joan beharrean Berrizen entseatzen geratzea...

**Musikoterapia saioak dinamizatzen egiten duzu lan.**
Bai, 0 eta 100 urte arteko jendeagaz, terapia egiteko tresna moduan erabiltzen dut musika. Musika eskoletan eta 3. adinekoen egoitzetan eskaintzen ditut saioak, Gasteiz inguruan, gehienbat. Irakaslea naiz, eta hezkuntza eta musikaren inguruan ibili izan naiz beti.


14 urtegaz Eta Zer taldea sortu zuen Agirrek kuadrillako hiru lagunekin. Saioa Gauilunak

# Sagardoyren 'Handia' Zinemaldiko Sail Ofizialerako hautatu dute

Eneko Sagardoy aktore durangarra protagonista duen 'Handia' filma da Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiatuko den euskarazko film bakarra

**> ZINEMA** J. G./ I. E.

Irailaren 22tik 30era bitartean Donostian egingo duten 65. Zinemaldiaren Sail Ofizialean estreinatuko dute Eneko Sagardoy aktore durangarra protagonista duen *Handia* filma. Zinemaldian parte hartzea "amets bat" dela aitortu du Sagardoyk, eta "tarteka hunkituta eta tarteka sinetsi ezinik" dagoela adierazi du. Izan ere, aurten nazioartean ekoitzi diren film luzeen zerrendako beste 18 filmeek bezala, Urrezko Maskorra jasotzeko aukera izango du *Handia*k. Sail ofizialeko euskarazko film bakarra da, gainera, Aitor Arregik eta Jon Garañok zuzendurikoa.

"Ardura handia den arren, goi mailako erakustoki batean estreinatzeak ateak ireki diezazkioke filmari", azpimarratu du Durangoko aktoreak. "Donostiako Zinemaldia munduko zine festibalik garrantzitsuenetakoa da, eta Sail Ofizialean lehiatzea pribilegio handia", dio gazteak.

*Loreak* edo *80 Egunean* filmak sortu zituen Moriarti ekoiztetxearen lana da *Handia*. *Altzoko Aundiya* ezizenez ezaguna egin zen Miguel Joaquin Eleizegiren istorioa kontatzen du filmak. Bere gorpuzkera handia eta berezia zela-eta, Espainia, Portugal, Frantzia eta Ingalaterrako Gorteetara eraman zuten Altzon jaiotako gizona, errege-erreginek ikus zezaten. "Bidaia oso interesgarria proposatzen du pelikulak", protagonistaren papera antzezten duen Sagardoyren berbetan, "mundu zahar eta berriaren arteko talka gertatu zen garaia eta pentsaera ezagutzera garamatzana".

Durangon egin zuten filmaren grabaketa saioetako bat, eta eskualdeko hainbat figurantek ere parte hartu zuten.



Eneko Sagargoy eta 'Handia' filmeko bere kideak, Zinemaldiaren aurtengo edizioaren aurkezpenean.

# Erretratuei buruzko tailerra eskainiko du Clavarinok

Begira Photo jaialdiaren aperitiboa izango da


Esperimentaziorako gonbitea egingo du argazkilari italiarrak tailerrean.

**> ARGAZKIGINTZA** I. E.

Urriaren 26tik azaroaren 18ra bitartean egingo dute argazkigintza garaikidearen inguruko Begira Photo jaialdiaren zazpigarren edizioa, Durangon. Jaialdiko programazioa hasi orduko, argazkigintzari loturiko hainbat ekimen egin dituzte azken hilabeteetan, Durangon; udaberrian argazkigintzari buruzko saiakera lehiaketa eta argazki lehiaketa egin zituzten, adibidez. Jaialdia hasi orduko, beste aperitibo bat ere eskainiko du Begira Photok, asteburu bi barru. Federico Clavarino argazkilariaren tailerra.

Dagoeneko eman daiteke izena Federico Clavarinok (Turin, 1984) irailaren 16an eta 17an Durangon eskainiko duen ikastaro horretan parte hartzeko. 658 708 264 zenbakira deituta edo *info@mugaproject.com* helbidera idatzita eman daiteke izena. *Retrate quien pueda* izenburua dauka tailerrak, eta teoria eta praktika uztartuko ditu. Teknika tradizionaletatik haratago joanda, esperimentatzeko gonbitea egingo die Clavarinok argazkizaleei.

> Irailaren 16an eta 17an goiz eta arratsaldez egingo dituzte tailerreko saioak, Durangon

> Urriaren 26an hasiko da Begira Photo, Durangon. Jaialdiaren aperitibo legez aurkeztu dute tailer hori

## GEURE DURANGALDEA

**JOSUNE ARANGUREN ZATIKA**

Kultura teknikaria



**Propaganda**

Kale kantoian gazteak ikusi ditut litxarreriak jan eta zarataka lurrera patxadaz botatzen. Udalak eskatu die paisaia hala sortzen laguntzeko? Ez dakigu, ez baitugu agintarien mezurik jasotzen, zelako herria nahi den azalduz. *Laissez faire*.

Jaietako musika arautzearen eztabaida behintzat ibili da. Eskerrak! Udalek bere eskumenak gauzatu eta baimenak ematean, baldintzak argi ipintzen dituzte. Eskumena denez, berdin zaigu Uliak eta Sandiak tertulian esango dutena. Tinko bai herritarrei zergen erabilera azaltzean bai kanpokoei zein herritara datozen jakinaraztean.

Berlinen eraikitzen ari diren metro linea berriko obrak hesi batek inguratuta daude. Horretan irudi didaktikoek azaltzen dute zertan ari diren, espero diren onurak, iraupen eta kostua eta hainbat informazio gehiago. Esperientzia dute alemanek gobernatzean propaganda erabiltzen: metroan gazteei kondoiak erabiltzeko esan; garagardo festan, alkohola hartzeko arauak erakusgai jarri; alemana hobetzeko mezuak zabaldu. Neurri jakinen egokitasuna baloratu barik, nahi den herriari buruzko mezuak zabaltzeaz ari naiz.

Berdintasuna, euskara, gazteria eta politiken zehar lerroen alde hartzen diren neurriak azaltzeko hesiak behar dira barraka, berbena, turismo bulego eta abarretan. Bestela geure herria marisko feria bat izango da, kartelak gaztelaniaz dituena, Kolonbiako musika inguruan. Urruneko adibidea al da?

http://josunearanguren.blogspot.com.es/





**Ane Elordi Alburquerque** (Zornotza, 1991) | **Harriti neska taldeko kidea**

# “Aurretik ezer ikusi barik joan nintzen lehenengo entrenamendura; arnesa jantzi eta aurrera!”

Arratiako Harriti nesken taldean hasiberria da zornotzarra; 500 kiloko harriari tiraka erakustaldiak eskaintzen dituzte

> KIROLA Joseba Derteano

**Gipuzkoan hiru talde daude, baina Bizkaian bakarra dira. Uda, herrietako eta auzoetako jaiak tarteko, sasoi aproposa da erakustaldietarako, eta hara eta hona dabiltza. Ikusleen partetik harrera oso ona jasotzen dutela nabarmendu du Elordik. Proben amaieran zoriondu egiten dituzte, eta asko eurak ikustera joaten dira. “Azkenean, nobedadea gara”.**




**Herri kirolak gizonen plaza izan dira. Ildo horretatik, mugarri bat zaretela uste duzu?**
Baietz uste dut. Aurreko batean, Artaunen aritu ginenean, gizon batek esan zuen. “Begira, guapak dira gainera”. Ea, derrigor handiak, sendoak eta morroskoak izan behar dugu Perurenaren antzera? Jende baten partetik jakin-min modukoa sumatzen dugu: zelakoak garen, zer egingo dugun… Baina, egia esanda, ez da indar kontua bakarrik, talde lana baino. Edozelan ere, normalean, harrera oso ona eta berotasuna jaso izan ditugu. Lana amaitzen dugunean zoriondu egiten gaituzte. Eta ikusleei gugaz tiratzeko aukera eskaintzen diegu, egiten duguna benetan zer den probatu dezaten. Gasteizen zaldiak aritu ziren, lehenengo, harriari tiraka; ostean gu, eta azkenik idiak. Asko gu ikustera etorri zirela esan ziguten arduradunek. Azkenean, nobedadea gara.

**Noiz sortu zen Harriti nesken taldea?**
2014an Gure Esku Dago dinamikak sustatutako giza katearen harira sortu zen. Herri kirolen erakustaldi berezi bat egin gura zuten. Arkaitz Arana entrenatzaileak ezagutzen zuen herri kirolen mundua eta beragaz hartu-emanetan jarri ziren. Zeanurin eta Soraluzen talde bana sortu zituzten giza katerako. Soraluzekoa egun horretarako bakarrik izan zen, baina Harritik aurrera jarraitu zuen.

**Zuk hiru bat hilabete daramatzazu Harritin. Zelan sortu zitzaizun batzeko aukera?**
Lankide bat taldekidea da. Aste Santu ostean Morgako proba baterako tiralari bi falta zitzaizkien. Eskaintza egin zidaten, baina egun horretan ezin nuen. Hala ere, kirola gustuko dut eta probatuko nuela esan nien. Aurretik ezer ikusi barik joan nintzen lehenengo entrenamendura. Arnesa jantzi eta aurrera!

> *“Normalean, harrera ona izaten dugu; zoriondu egiten gaituzte probak amaitzean”*

**Kirol honi buruz aurretik zenekienak eta ondoren ezagutu duzunak badute zerikusirik?**
Kanpotik begiratuta, astokeria bat dela dirudi. 500 kiloko harriari tiraka, ematen du indarka bakarrik aritu behar dela, baina ez da horrela. Indarra neurri bateraino behar da. Gehiago da denok batera joatea eta hanken koordinazioa. Nire lehenengo entrenamenduan sumatu nuen hori. Hanka pauso denak batera joan behar dira eta hori lortu arte kolpeka gindoazela igartzen zen. Harria kolpeka eramaten bagabiltza, zerbait txarto egiten ari garen seinale da.

**Plazan eta jendaurrean estreinatu zara?**
Bai, Santutxun izan nuen estreinaldia, uztaileko jaietan. Goazen toki guztietan ez dago probalekurik, eta gogoan dut Santutxun aldapa gora aritu ginela lanean. Gure helburua taldea ezagutzera ematea da. Askok ez dakite existitzen garenik ere. Beraz, ez digu ardura. Erromon, Gasteizen eta Artaungo (Dima) jaietan ere aritu naiz.

**Zelan joan zen Santutxun jendaurreko zure lehenengo jarduna?**
Beldurrez joan nintzen, ea zelan arituko nintzen. Gainera, normalean hamar lagun egoten gara, eta zortzirentzako lana denez, txandatu egin gaitezke. Baina Santutxun zortzi bakarrik geunden. Banekien hasieratik amaierara jardun beharko nuela. Zorionez, ondo joan zen, eta gustura aritu nintzen.

> *“Derion emakume batek geratzeko eskatu zigun, sufritzen zegoela guri begira”*

**Zuen moduko talde asko daude?**
Bizkaiko talde bakarra gara. Gipuzkoan beste hiru daude: Mendaron, Ibarran eta Astigarragan. Domeka honetan azken bien eta gure arteko txapelketa dugu Bermeon. 20 minutuan nork untze gehiago egin. Txapelketaren bigarren aldia da. Uste dut denboraldi osoan antzerako txapelketa bakarra dela.

**Zer esperantzagaz zoazte?**
Pike sano apurtxo bat badago, egia esan. Gabiltzan tokietako argazki asko igotzen ditugu sare sozialetan, baina ez da komeni informazio gehiegi ematea, badaezpada; zenbat untze egiten ditugun, esaterako. Beraz, ez dakigu eurak zelan dabiltzan, baina eurek ere ez gu zelan gauden. Beroa ere faktore erabakigarria izan daiteke.

**Asteburu honetakoaz gainera, zeintzuk dira hurrengo hitzorduak?**
Besteak beste, hurrengo asteburuan Bilboko auzo batean arituko gara. Irailaren 16an Diman izango gara, Dimetal jaialdiaren harira.

**Hitzorduak gehitzen badoaz, talde bat baino gehiago sortu beharko duzue!**
Bai. Bizkaiko neskak eta emakumeak kirol hau probatzera animatu gura ditut. Orain 10 gabiltza, baina jende gehiago beti dator ondo. Arratiako taldea zen hasieran, baina, azken aldian, Ugaoko eta Zornotzako bana gehitu gara.

**Herri kirolek beste kirol askok baino arreta txikiagoa pizten dute hedabideetan. Errazagoa da, esaterako, saskibaloian hastea. Zelan konbentzitu inor harriari tiraka hasteko?**
Herri kirolak hedabideetan agertzen badira, normalean, edo Aitzol Atutxak txapelen bat irabazi duelako edo antzerako zerbaitengatik izaten da. Gizonezkoa delako eta txapelen bat irabazi duelako. Nola konbentzitu? Alde batetik, gure arbasoengandik datorren kirola edo ohitura da. Gainera, nire ustez, oso kirol polita da, indarraz gainera bestelako dohainak ere eskatzen dituena. Behin, taldekideak Derioko erakustaldi batean zebiltzala, hauxe esan zien andra batek hasi eta bost minutura: “Mesedez, geratu zaitezte. Sufritzen nabil zuei begira!”. Sufritzen zegoen kanpotik guri begira. Lasai egoteko esan genion, ondo prestatuta geundela.

# Bilbao Basket eta Gipuzkoa Basket Euskal Koparen bila arituko dira, bihar, Durangon

Sarrera doakoa da, baina antolatzaileek aurrez eskuratzeko eskatu dute, jende ilarak ekiditeko




Talde bietako, Euskadiko federazioko eta Durangoko Udaleko ordezkariak partiduaren aurkezpenean.

> SASKIBALOIA J. D.

Euskal Kopa berreskuratu dute urte batzuetako hutsunearen ostean, eta indartsu ekingo dio aldi berriari. ACBn dihardutén hiru euskal taldeetatik bi batzea lortu dute. Durango goi mailako ikuskizun horren lekuko izango da, RetaBet Bilbao Basketek eta Gipuzkoa Basketek Landako kiroldegian jokatuko baitute finala, zapatuan, 18:30ean.

Partidua Durangon jokatzea "ez da kasualitatea", German Monge Euskadiko Saskibaloi Federazioko presidentearen esanetan. Azpiegitura egokiak ez ezik, beti ekitaldiak antolatzeko laguntasuna sentitu dutela nabarmendu du eta erakundeen zein Tabirako klubaren laguntza eskertu du.

Sarrera doakoa da. Ilarak ekiditeko, txartelak aurreko egunetan eskuratu daitezke; barikuan, 18:30etik 20:00etara. Oraindino sarrerarik geratuko balitz, zapatuan bertan partidua hasi aurretik jarriko lituzkete eskuragarri. Gehienez pertsonako bi eskatu daitezkeela ohartu dute.

Euskal Kopagaz saskibaloiari aupada bat ematea eta "jendartera gehiago zabaltzea" dute helburu, Mongek azaldu duenez. "Eta zer hoberik horretarako euskal saskibaloiko bi talderik garrantzitsuenetakoak batzea baino", gehitu du. Bilbao Basketeko zuzendari orokor Diego Saenzek eta Gipuzkoa Basketeko presidente Nekane Arzallusek finala jokatzea "ohore bat" dela azaldu dute. "Gainera, garrantzitsua da hirietatik irten eta Durango moduko herrietan jokatzea. Ona da euskal saskibaloiarentzat", uste du Arzallusek.

## ADITUAREN TXOKOA

**KOIKILI LERTXUNDI DEL CAMPO**
Futbolari ohia eta enpresaria



### Tunel historikoa

2017ko abuztua ez dut sekula ahaztuko, izan ere kirolari esker historiaren aro ezberdinekin bat egiteko pagotsa izan dut, eta Historian Lizentziatua izanik, agerikoa da gozatua itzela izan dela. Hots, Mongolia Bike Challenge BTT lasterketari esker, Erdi Arotik Aro Garaikidera (Aro Modernotik pasatu gabe) salto egiten duen lurraldea eta biztanleak ezagutzeko parada izan dut. Emozioz beteriko bidaia historiko batean murgildu naiz!

"Lerro hauek balio dezatela Athleticen museoari bisita egiteko gonbite gisa"

Behin EHra itzulita, oraindik Mongoliako gorabeherak guztiz asimilatu gabe ditudala, gure historian, eta zehazki Athleticen historian murgildu naiz beste behin, buru-belarri gainera. Eta nola, gainera! Gaurtik aurrera pertsona orok aukera berdina izango du, hau da, San Mamesen irekia berri den museo historikoa ezagutzeko aukera!

Beraz, lerro hauek balio dezatela museoari bisita egiteko gonbite gisa, historia zurigorria modu dinamiko eta erakargarrian ikuskatzeko, Iribarri penaltiz gola egiten saiatzeko, San Mameseko berdegunea zapaltzeko, belar gainean sentitzen dena dastatzeko, emozioak nahiz oroitzapenak astitzen dituen tunel historikoan murgiltzeko, alegia.

## Iñakiren Bideak ibilbidea egingo dute asteburuan

> BIZIKLETA J.D.

Iñaki Lejarreta gogoratzeko helburua duen Iñakiren Bideak bizikleta ibilbidea egingo dute asteburuan. Aurten bosgarren aldia izango du. Euskal Herriko hainbat herri mendi bizikletagaz lotuko dituzte hainbat etapatan. Erreleboka arituko dira. Berrizko Elizondo Plazatik abiatuko dira, zapatuan. Bederatzi etapa eta 423 kilometro egin ostean, domekan 16:00etan helduko dira Berrizburura.



Bederatzi etapatan 423 kilometro egingo dituzte.

## Frades hamabigarren munduko txapelketan

Munduko Iron Man txapelketa izango du urrian

> TXIRRINDULARITZA J. D.

Kanadan distantzia luzeko munduko triatloi txapelketak jokatu dituzte eta Gurutze Frades iurretarrak 12. tokian amaitu du emakumeetan. Uretatik 17. postuan irten eta, ohi duen moduan, hainbat postu aurreratu zituen bizikletan eta korrika.

Munduko bosgarren txapelketa zuen. Aurreko lauretan hamar onenen artean sailkatzea lortu zuen: bederatzigarren 2012an eta 2014an, zazpigarren 2013an eta laugarren 2015ean. Orain urriaren 14an Konan (Hawaii) jokatuko den munduko ironman txapelketarako prestakuntzan zentratuko da.



GURUTZE FRADES

Iaz lehenengoz parte hartu zuen eta ezin izan zuen bererik eman arazo fisiko batzuk zirela medio. Ondorioz, aurtengorako sailkapena konplikatu egin zitzaion, baina, azkenean,behar adina puntu batu ditu.






# OSASUN GIDA

## OPTIKA

keinu
optometria zentroa
Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.
- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099
www.keinuoptometriazentroa.com
PSE: 162/13

## FISIOTERAPIA

Zainduz
**FISIOTERAPIA OSTEOPATIA**
Ane Legorburu Munitxa
**Trañabarren 13, 4. blokea, behea eskuma**
**48220 MATIENA-ABADIÑO**
**Tel.: 944 657 132 - 686 906 374**
PSE: 119/13

**PABLO ZUBIZARRETA**
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA
**Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO**
**pzubizarreta@gmail.com**
**Tel.: 946 550 049**
**Mug.: 695 784 963**
PSE: 57/16

## PEDAGOGIA

UGATZ
**UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA**
*Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia*
**Juan Olazaran, 1 behea**
**48200 DURANGO**
ugatz@hotmail.es
**Tel.: 944 668 370 - 615 782 090**
PSE: 63/63

## PODOLOGIA

PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA
**GOIATZ MURUA**
PODOLOGOA
**AINHOA ELORZA**
PODOLOGOA
**NEREA RODRIGUEZ**
PODOLOGOA
*Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak*
**Monagotorre, 4 - behea DURANGO**
**Tel.: 946 203 630**
PSE: 148/13

## ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
www.medicinaesteticadurango.com
**Laser berria:**
*Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra*
*Obesitatea-zelulitisa,*
*Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...*
*Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*
**Txatxiena, 6**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 810 387**
PSE: 16/09

## MEDIKUNTZA

IGOTZ ARANBARRI
Ezkurdi
osasun zentroa-centro médico
**DIABETESA DAUKATEN PERTSONENTZAKO ARRETA ETA LAGUNTZA ZERBITZUA**
**Askatasun Etorbidea, 23**
**DURANGO**
**Tel.: 946 81 81 81**
PSE: 40/17

## ODONTOLOGIA

clínicadental hortzklinika
**B. UNAMUNZAGA**
**E. ETXEBARRIA**
*ODONTOLOGIA OROKORRA*
*ETA ESPEZIALIZATUA*
**Muruetatorre, 2C - behea**
**48200 DURANGO**
*uecdental@gmail.com*
**Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454**
PSE: 145/13



**J.L. URRETA ZABALO**
*MEDIKU ESTOMATOLOGOA*
*IMQ, PADI (umeen hortz programa)*
*Ortodontzia*
**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 812 200**
PSE: 112/13

## PSIKOLOGIA

**JON ARRUABARRENA**
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA
- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK
**Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO**
**jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz**
**Tel.: 946 033 246 - 629 245 728**
PSE: 62/11

# Inmobiliariak

**AMBOTO INMOBILIARIA**
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

## ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN

**DURANGO**. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 600€-tik hasita.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO**. San Fausto. Logela biko pisua, sukaldea, bainugela eta logela. Merkea

**BERRIZ**. Etxebizitza guztiz berriztua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

**DURANGO**. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

**ELORRIO.** 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, bainugela, eta garajea itxita.

**DURANGO. ARTEKALE**. Azken duplex-ak, logela bikoak, bi bainugelarekin. Prezioak 179.000 €-tik hasita.

**LEKEITIO**. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ABADIÑO**. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, bainugela, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

**DURANGO**. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

**ATXONDO.** Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR**. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

## LURSAILAK SALGAI

**ABADIÑO**. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ.** 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA.** 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO**. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA**. Txalet bifamiliar bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

## BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ELORRIO**. Aldape auzoa. Baserria berriztatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 160.000 €

**ATXONDO**. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ**. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA**. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO**. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

**BERRIZ**. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

## BULEGOAK ALOKAIRUAN

**ABADIÑO**. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350€-tik hasita.

## LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

**ISD Inmobiliaria del Duranguesado**
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### IBAIZABAL AUZUNEA



• 102 m2 erabilgarri. 3 logela, 2 bainugela, egongela eta sukaldea jarrita. Prezioaren barruan garajea eta ganbara zabala. **350.000€**

### MARTXOAREN 8KO



• 90 m2 bi balkoirekin. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 bainugela, 2 balkoi, trastelekua eta bi garaje. Oso egoera onean. **E.E.Z: E. / 265.000€**

### ASKATASUN ETORBIDEA



• 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 balkoi eta terraza. Garaje plaza zabala eta ganbara 15 m2-koa, veluxarekin. **E.E.Z: zain. / 230.000€**

### FRANCISCO IBARRA



• 111 m2 erabilgarri dituen etxebizitza: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 bainugela eta bi balkoi handi. Berogailua eta igogailua. **230.000€ / E.E.Z: E**

### IURRETA: DOTOREA!



• 55,24 m2 erabilgarri. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta balkoia. Igogailua, kalera ematen duena. Fatxada eta teilatu berriak. **E.E.Z: zain. 115.000€**

### ZALDIBAR



• 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta balkoia. Oso egoera onean. **E.E.Z: zain 100.000€**

**www.inmoduranguesado.com**

**ETXETXO G. INMOBILIARIA**
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

## AUKERA

- JUAN de ICIAR : 1. Solairua. 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. 2 despentsa. Berogailua. Bizitzera sartzeko prest. Dena kanpora begira. 85.000€.
- ZUBIAURRE. 3 logela. Bainugela. Kanpora begira. Eguzkitsua. 75.000€.
- IURRETA. Etxebizitza altua. 2 logela. Bainugela. Igogailua. Berogailua. 99.000€.
- B. KAPANAGA. 3 logela. Egongela. Terraza. Berogailua 87.000€.
- DURANGO. 3 logela. Bainugela. 80.000€.
- IZURTZA. 2 logela. Bainugela. Egongela. Bizitzera sartzeko moduan. 80.000€.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- OIZ: Etxebizitza altua. 3 logeka. Sukaldea. Egongela. 2 Terraza. Kanpora begira 140.000€.
- M.TORRE: 3 logela. 2 bainugela. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. 265.000€.
- F. J. Zumarraga: 130 m2. Nahiko berria. 4 logela (orain 3 logela) 2 bainugela. Sukaldea eta egongela zabalak terrazarekin. Ganbara. Trastelekua eta garajea itxita 2 autorentzat (aukeran). 285.000€.
- ASK. ETORBIDEA: 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. 230.000€.
- SAN FRACISCO. Etxebizitza altua. 3 logela. Bainugela. Sukaldea.Esekitokia. Egongela. Terraza. Garajea aukeran. 170.000€.
- ASTEPE. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitokia. Egongela terrazarekin.Trastelekua eta garajea. Eguzkitsua. 215.000€.
- IURRETA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Berogailua. Igogailua. Berriztua. Eguzkitsua. 140.000€.
- ARKOTXA: 110 m2. 4 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua.185.000€.
- LANDAKO ETORBIDEA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara. Trastelekua eta garajea. 226.000€.
- MARTXOAREN 8KO. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitokia. 2 terraza. Ganbara. 2 garaje. 265.000€.
- MONTEBIDEO. 80m2. 3 logela. Bainugela. Egongela. Sukaldea. Despentsa. Ganbara. 150.000€.
- ELORRIO. 67 m2. 2 logela. Bainugela. Eguzkitsua. Ikuspegi onekin. 124.900€.
- SAN IGNACIO. 116m2. 3 logela. 2 bainugela. Egongela. Ganbara. Dena kanpora begira. Eguzkitsua. 236.000€.
- ZALDIBAR. BERRIAK. ESTREINATZEKO. 2 eta 3 logela, 2 bainugela. Sukaldea. Balkoia. Egongela. 153.000 € (BEZa barne)
- SAN AGUSTINALDE. 103 m2. DENA BERRIA. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza.
- J. M. ALTUNA. 100m2. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea esekitokiarekin. Egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. 269.000€.
- BIDEBARRIETA/ ASKONDO. 3 logela. 2 bainugela. Egongela eta terraza. Eguzkitsua. DENA BERRIA. 180.000€.
- BASERRIA. Sarria. Familia bakarrekoa. 377 m2. Berriztatua. Lursailarekin. 8.000 m2.
- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. 2 Terraza. Igogailua. 135.000€.
- ZALDIBAR. Baserria. Goierri. Lursailarekin 260.000€

## LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN

- DURANGO. TABERNA martxan. 95 m2.162.500€
- C/ERMODO. ALOKAIRUA. 600€.
- ABADIÑO. Ile-apaindegia. 50m2. ALOKAIRUA: 600 €. SALMENTA: 75.000€.
- ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.

**LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN. KONTSULTATU.**
**www.inmoetxetxo.com**


**ALOKAIRUAN ETA SALGAI DITUZUN HIGIEZINEN BERRI EMAN NAHI AL DUZU?**

**Anbotok tarte hau eskaintzen dizu**

**Informazio gehiagorako:**
**Tel.: 946 217 902**
**publi@anboto.org**

# anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

## Higiezinak

### ETXEBIZITZAK

#### SALDU

**Durango.** Pisua salgai Durango erdi-erdian, Madalenako autobus geltokiaren alboan. Berritua (eraikina, ataria eta pisua). Oso eguzkitsua. Bista onak. 3 logela. Arropa zabaltzeko tokia. Igogailua. Interesa duenak deitu edo idatzi: 676-97-65-87 / oizkalea@gmail.com.

**Elorrio.** Pisua salgai. Memaia auzoan, Goieta kalean. 140 m2. 4 logela, sukaldea, egongela handi bat eta bi komun. Bi balkoi eder eta igogailua. Garaje propioa eta lonja. Berdegune pribatuak komunitatean. Oso eguzkitsua eta lasaia. Herriko plazatik gertu. Oso aukera ona! Tel: 656-78 90 69

**Otxandio.** Apartamentua salgai Otxandion, trastelekuarekin eta igogailuarekin. Tel.: 675-71 72 83

#### ERRENTAN EMAN

**Berriz.** Baserri bateko lehen solairua alokagai dago Sarrian (Berriz), lursaila barne. Tel.: 655-72 52 52 eta 652-75 47 23

#### ERRENTAN HARTU

**Durango.** 3-4 logelako pisu baten bila gabiltza. Urteak alokairuan bizitzen, arazorik gabe. Tel.: 695-75 23 43.

### LOKALAK

#### ERRENTAN EMAN

**Durangaldea.** Fisioterapia zentro batek gela bat alokatzen du beste osasun profesional batentzat (psikologia, podologoa, nutrizionista, logopeda...). Tel.: 944-66 94 00

### OPORRETAKO ETXEBIZITZAK

#### ERRENTAN EMAN

**Durangaldea.** Apartamentua alokatzen da Vieux-boucau herrian, Le boucanier erresidentzian. Tel.: 675-71 93 63

### GARAJE / TRASTEROAK

#### SALDU

**Otxandio.** Otxandion garaje itxia saltzen dut. Tel.: 675-71 72 83.

## Lana - negozioak

### LAN ESKARIAK

#### PERTSONAK ZAINDU

**Elorrio.** Emakume euskalduna eta esperientziaduna, irailetik aurrera, goizetan haurrak esnatu, gosaltzen eman eta eskolara eramateko prest. Interesa baduzu, deituidazu: 658 759 264 Eskerrik asko!

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, kanpoko zein barneko langile moduan. Esperientziaduna eta erreferentziekin. Tel.: 612-57 49 82

**Durangaldea.** Lan bila nabil nagusiak zaintzen, kanpoko zein barneko langile moduan. Erreferentzia onekin. Tel.: 688-73 35 06

**Durangaldea.** Emakumea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen kanpoko zein barneko langile moduan. Arduraduna, erreferentziekin eta esperientziarekin. Tel.: 631-95 28 27

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko zein barneko langile moduan, edo orduka. Tel.: 632-98 18 22

**Durangaldea.** Neska euskalduna, ikasketekin eta esperientziarekin, umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest dago. Tel.: 662-36 41 67 Tel.: 946-81 39 40

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, barneko langile moduan. Esperientzia dut, baita erreferentziak ere. Tel.: 631- 22 37 92

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Erreferentziak ditut eta 2012tik lan hauek egiten aritu naiz. Tel.: 622-95 74 59

**Durangaldea.** Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen. Goizetan edo barneko langile moduan. Tel: 632-29 15 39

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila pertsona nagusiak zaintzen, kanpoko zein barneko langile moduan. Tel.: 631-22 37 91

**Durangaldea.** Esperientziadun emakumea lan bila nagusiak zaintzen. Tel.: 642-95 91 72

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko langile moduan, baita etxeetako garbiketan ere. Esperientzia eta erreferentziekin. Tel: 631-22 37 92

**Durangaldea.** Lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langile moduan aritzeko prest. Baita orduka edo asteburuetan ere. Tel.: 631-40 83 71

**Durangaldea.** Emakume euskalduna lan bila dabil, pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tel.: 697-49 20 58

**Durangaldea.** Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen. Goizetan edo barneko langile moduan. Tel.: 631-40 83 71

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila pertsona nagusiak zaintzeko. Barneko zein kanpoko langilea. Esperientziaduna. Tel: 631-95 28 27

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila, barneko zein kanpoko langile moduan. Erreferentziak ditut. Tel.: 612-57 49 82

**Durangaldea.** Lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka, barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 632-84 52 22

**Durangaldea.** Neska arduratsua eta sinpatikoa lan bila dabil barneko zein kanpoko langile moduan. Esperiantza daukat, baita erreferentziak ere. Tel.: 631-95 28 27

**Durangaldea.** Lan egin nahi nuke pertsona nagusiak zaintzen, barneko zein kanpoko langile moduan. Erreferentziak ditut eta oso arduratsua eta garbia naiz. Tel.: 612-56 49 82

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko langile moduan. Erreferentziak eta esperientzia ditut. Tel.: 631-23 27 92

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Orduka edo kanpoko langile moduan. Tel.: 602-14 55 93

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Orduka edo kanpoko langile moduan. Tel.: 632-84 30 26

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Orduka, kanpoko edo barneko langile moduan. Asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 631-85 10 93

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, orduka. Tel.: 632-20 42 45

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 632-16 37 82

**Durangaldea.** Etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Tel.: 697-49 20 58

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Baita tabernetako edo atarietako garbiketak egiteko prest ere. Lanaldi osoan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-28 71 29

**Durangaldea.** Lan bila nabil gauetan pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 690-68 73 95

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Kanpoko, barneko zein orduko langile moduan. Tel.: 632-29 15 39

**Durangaldea.** Neska arduratsua esperientziarekin eta erreferentziarekin lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketa lanetan aritzeko prest ere banago. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 632-72 50 54

**Durangaldea.** Neska arduratsua esperientziarekin eta erreferentziekin lan bila dabil umeak edo pertsona nagusiak zaintzen. Garbiketa lanetan aritzeko prest ere banago. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-41 58 36

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko zein barneko langile moduan. Erreferentziak ditut. Tel.: 631-34 52 86

#### IRAKASKUNTZA

**Durangaldea.** Bigarren Batxillergoko ikasle euskalduna 2017-2018. Ikasturtean lehen hezkuntzako klase partikularrak emateko prest. Tel: 697-32 92 88

**Durangaldea.** Ikasle euskalduna irailetik aurrera eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 692-32 92 88 (whatsapp bidez ere erantzuten da).

**Durangaldea.** Bigarren Batxilergoko ikasle euskaldunak eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 697-32 92 88

#### GAINERAKOAK

**Durangaldea.** Lorezain moduan, sastrakak kentzen zein baserr iko lanak egiteko lan bila nabil. Baita gauetan nagusiak zaintzeko ere. Tel.: 690-68 73 95

### LAN ESKAINTZAK

#### OSTALARITZA

**Durangaldea.** Durangoko taberna batean sukaldean pintxoak egiteko pertsona bat behar da laguntzaile lanetan aritzeko. Jarri kontaktuan whatsapp bidez. Tel.: 610-41 55 11

#### PERTSONAK ZAINDU

**Durangaldea.** Laguntzaile pertsonala behar da pertsona bat Durangotik Bilbora eramateko (trenez edo kotxez). Ordutegia: 8h15ean Durangon . Itzultzeko, Bilbon, 13:00etan. Egunak: astelehenetik ostegunera. 2 ordu egunero. Hilabeteak: iraila-urria-abendua. Soldata: 160euro, segurantza soziala, eta langabezia. Tel.: 690-28 60 71.

#### IRAKASKUNTZA

**Durango.** Ingeleseko irakaslea behar da Batxilergoko ikasturtean zehar ikasle bati laguntzeko. Tel.: 607 45 53 96 (Paula)

## Denetarik

### SALDU / EROSI

**Gitarra salgai.** "Admira juanita" modeloko gitarra klasikoa saltzen dut. oso egoera onean dago eta zorroa oparitzen dut. Dena 85 euroren truke. Tel.: 655-71 48 66 (Whatsapp)

### EMAN / HARTU

**Katakumeak oparitzen ditut.** Gorriak eta beltzak. Tel.: 643-68 15 09

### GAINERAKOAK

**Neska bat ezagutu nahiko nuke lagunak izateko.** Durangon bizi eta lan egiten duen senegaldar bat naiz. Neska bat ezagutu nahiko nuke








# AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Irailaren 2an, 20:00etan, Abadiñoko Muntsaratz auzoan**

## Usue Martinez eta Nerea Alza

Abadiñoko Muntsaratz auzoko jaietan joko dute, bihar, Nerea Alza eta Usue Martinez Durangaldeko musikari gazteek. Bi gitarra eta bi ahotsegaz sorturiko kantak eskainiko dituzte Muntsarazko jaietan.

### Jaiak

**:: ABADIÑO (Muntsaratz)**

IRAILAREN 1ean

**19:00etan,** Donien Atxa altxatzea.

**19:15ean,** umeen dantzak.

**20:00etan,** paella eta tortilla lehiaketako izen emateak, eta parrillada.

**20:30ean,** kontzertuak eta Danny Meip DJa.

IRAILAREN 2an

**11:00etan,** buruhandiak.

**11:45ean,** mozorro lehiaketaren hasiera eta argazkia.

**12:00etan,** umeentzako puzgarriak.

**14:00etan,** paellen aurkezpena.

**16:15ean,** mus txapelketa.

**18:00etan,** Crossfit erakusketa.

**18:30ean,** igel-toka lehiaketa, txosnan.

**20:00etan,** Usue Martinez eta Nere Alza kontzertuan.

**20:45ean,** tortillen aurkezpena.

**20:00etan,** disko dantza.

IRAILAREN 3an

**11:00etan,** Zelai-Alai hipikako poniak.

**11:30ean,** buruhandiak.

**12:00etan,** xakeko aldi bereko partidak.

**14:30ean,** herri bazkaria, zeure erara.

**16:30ean,** igel-toka lehiaketa, txosnan.

**17:15ean,** disko txiki.

**19:00etan,** txokolatada.

IRAILAREN 9an

Umeen futbito txapelketa (13 urtera arte).

IRAILAREN 10ean

**10:00etan,** VIII. Duatloi txikirako izen-ematea.

**:: ZORNOTZA (Euba)**

IRAILAREN 1ean

**16:30-19:30,** ume, gazte eta helduentzat, egurrezko jolas tradizionalak.

**20:15ean,** tortilla txapelketa (izen-ematea, 19:45ean)

**20:30ean,** mus txapelketa.

IRAILAREN 2an

**13:30ean,** umeentzako bazkaria.

**15:00etan,** nagusientzako bazkaria.

**22:00etan,** Gregory Mariatxia. Ondoren, Xaibor DJa.

IRAILAREN 3an

**12:00etan,** meza. Ondoren, Coral Zornotzaren emanaldia.

**18:30ean,** Anita Maravillasen 'Sardina bakalau' obra. Ondoren, Tio Teronen dantza emanaldia.

IRAILAREN 4an

**12:00etan,** auzoko hildakoen omenezko meza. Ondoren, luntxa.

**18:00etan,** hirukoteen arteko briska txapelketa.

### Tailerra

**:: BERRIZ**

IRAILAREN 15era arte

Iraileitk urtarrilera 5 asteburutan Tinus Wijnakker hezitzaileak eskainiko duen 'Umeen bidelagun' ikastaroan izena eman daiteke irailaren 15era arte, Umerri Eskola Aktiboan.

**:: MALLABIA**

IRAILAREN 4tik 8ra

Robotika eta bideojoko tailerra, 8 eta 16 urte artekoei zuzenduta, Kontsejuzarren.

### Lehiaketa

**:: DURANGO**

IRAILAREN 30era arte

2018an kaleratuko duten egutegirako irudiak aukeratzeko lehiaketa antolatu du Dendak Bai elkarteak. Informazioa: www.dendakbai.com webgunean.

IRAILAREN 29ra arte

Artestura feministak lehiaketara lanak bidali daitezke irailaren 29ra arte. Durangoko Andragunean aurkeztu behar dira lanak. Informazio gehiago: www.durango-udala.net webgunean.

### Musika

**:: ELORRIO**

IRAILAREN 8an

**21:00etan,** 'Si las mujeres mandasen' zarzuela, Arriolan.

### Erakusketa

**:: ZORNOTZA**

IRAILAREN 7tik 30era

Bosteko erakusketaren XX. edizioa, Zelaieta zentroan. Damaris Pan, Usoa Fullaondo eta Tasio Ardanaz artisten lanak.

### ZINEMA

**:: DURANGO** ZUGAZA

**La niebla y la doncella**
- **barikua 1:** 19:30-22:00
- **zapatua 2:** 20:15-22:30
- **domeka 3:** 19:15-21:30
- **astelehena 4:** 18:30-21:00
- **martitzena 5:** 20:00
- **eguaztena 6:** 20:00

**Barry Seal: el traficante**
- **barikua 1:** 19:30-22:00
- **zapatua 2:** 17:00-19:30-22:30
- **domeka 3:** 16:30-19:00-21:30
- **astelehena 4:** 18:30-21:00
- **martitzena 5:** 20:00
- **eguaztena 6:** 20:00

**Ana, mon amour**
- **barikua 1:** 22:00
- **zapatua 2:** 19:30-22:30
- **domeka 3:** 19:00-21:30
- **astelehena 4:** 21:00
- **martitzena 5:** 20:00
- **eguaztena 6:** 20:00

**Tadeo Jones y el secreto del rey Midas**
- **barikua 1:** 19:30
- **zapatua 2:** 17:00-18:00
- **domeka 3:** 16:30-17:00
- **zapatua 4:** 18:30

**:: ZORNOTZA** ARETOA

**Dunkerque**
- **barikua 1:** 20:15
- **zapatua 2:** 19:30-22:00
- **domeka 3:** 20:00
- **astelehena 4:** 20:15

**Irailaren 8an, 21:00etan, Elorrioko Arriolan**

## Si las mujeres mandasen

Emakumeek zarzuela generoaren barruan historikoki interpretatu dituzten rolak dira 'Si las mujeres mandasen' obraren ardatza. Emakumezkoek bakarlari nahiz abesbatzeko kide moduan eskaini izan duten errepertorioa biltzen du Bilboko Masa Coral del Ensanche taldearen ikuskizunak.



## > BOTIKAK

**BARIKUA, 1** 09:00-09:00

**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**ZAPATUA, 2** 09:00-09:00

**Mugica**
Andra Maria 9 - Durango

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-13:30

**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango

**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango

**De Diego**
Intxaurrondo 22. - Durango

**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango

**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango

**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango

**Larrañaga-Balentziaga**
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz

**Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**DOMEKA, 3** 09:00-09:00

**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ASTELEHENA, 4** 09:00-09:00

**Navarro**
Artekalea 6 - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**MARTITZENA, 5** 09:00-09:00

**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**EGUAZTENA, 6** 09:00-09:00

**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**EGUENA, 7** 09:00-09:00

**De Diego**
Intxaurrondo 22. - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotz

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

## > EGURALDIA

| | | |
|---|---|---|
| ZAPATUA | 21° / 11° | |
| DOMEKA | 25° / 15° | |
| ASTELEHENA | 24° / 15° | |
| MARTITZENA | 26° / 16° | |
| EGUAZTENA | 24° / 16° | |
| EGUENA | 24° / 16° | |

## > ZORION AGURRAK

zorionak@anboto.org
eguazteneko 14:00ak arteko epea

Gozotegia gozatu Obradorea
Ermodo, 11 · DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu.
Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.



> **Joanes**ek 8 urte bete zituen uztailaren 29an. Zorionak etxekoon partez.



> **Eder**rek abuztuaren 14an 8 urte bete zituen. Zorionak aita, anaia, aitite-amama ta osaba Mikelen partez. Muxu erraldoi bat!



> **Uxue**k 8 urte egin zituen abuztuaren 11n. Musu handi bat familia guztiaren partez.



> **Mikel**ek eta **Miren**ek 25 urte egin dituzte ezkonduta. Zorionak, bikote!



> Zorionak, **Gaizka,** Otxandioko ardizaina. Muxu handi bat etxeko bi sorginen partez.



> Zorionak, **Txomintxu**! Lokaleko neska guztiak zure opariaren zain gaituzu. Ondo pasa.



> Zorionak, **Ibon**! Musu handi bat eta ondo pasa, Inhar, Eider eta Rakelen partez.



> > Zorionak, **Eider**. Atzo gure printzesak 7 urte bete zituen. Musu handi bat Inhar, aita eta amaren partez.



> Ongi etorri gurera, **Martin**! Mosu potolo bat familia guztiaren partez. Amatxo eta aitatxori, zorionak! Disfrutatu!



Akuilua

**Josu Abaunza Zearsolo** (1989) eta **Xabier Solaguren Agirrebeitia** (1988) | Etxoste Proiektua | Abadiño

# "Proiektu honegaz bizimodu duin bat ateratzea ideala litzateke"

## Basatxerriko txerriak eta Euskal Txerriak hazten hasi dira bi gazte abadiñarrak Mendiola auzoan

> **AKUILUA** Aitziber Basauri

**Udaberrian hasi ziren Etxoste proiektuagaz Josu Abaunza eta Xabier Solaguren. Baserriagaz lotutako proiektu bati ekin gura zioten, eta Basatxerriko txerriak eta Euskal Txerriak hazteari ekin diote. Txerria hil ostean, kontsumo talde baten bitartez saldu gura dute euren produktua.**

**Nola abiatu duzue proiektua?**

**Xabier Solaguren:** Baserriagaz lotuta, zerbait egin gura genuen gure kabuz. Josuren gurasoek lur batzuk utzi dizkigute euren etxostean, eta han ari gara. Basatxerriren lau txerrigaz eta Euskal Txerri bigaz hasi ginen, eta abuztuan beste lau ekarri ditugu, katea egiten joateko. Lurrik ez baduzu, ahaztu!

**Josu Abaunza:** Biok gatoz baserritik, eta jakin badakigu horrelako proiektu bat bakarrik abiatzea oso gogorra dela. Elkarregaz aurrera egiteko aukerak ikusi genituen.

**Nola doa?**

**X.S.:** Hasi baino ez gara egin. Motibatuta gaude, baina martxa hartu arte ez dago jakiterik.

**J.A.:** Bai, baina pozik gaude! Inoiz ez dugu txerririk izan eta ikasteko eta hasteko era bat da.

**Errentagarria da proiektua?**

**X.S.:** Ez dakigu. Momentuz ez digu jaten emango, badakigu! Hala ere, bi izateak beste joko bat ematen digu. Egunerokoan ez dute lan askorik ematen, baina gainean egon behar da: alde ez egiteko, jatekoa emateko, itxitura ondo dagoen ikusteko...

**J.A.:** Baserriak eta rock&rollak ez du dirurik ematen, baina poztasuna bai . Proba egin gura dugu, eta gustura gabiltza. Denborak esango digu zer egin dugun ondo eta zer txarto, hobetzen joateko.

**Etorkizuna nola ikusten duzue? Zein da erronka?**

**X.S.:** Kontsumo talde bat sortzea da gure asmoa, eta txerria hiltzen dugunean, paketeetan banatuta saltzea. Era horretan badabiltza batzuk txahal-okela saltzen. Txerriarena ez dago hain hedatuta. Proiektu honegaz bizimodu duin bat ateratzea ideala litzateke. Norberarentzat egindako lana da eta beste satisfakzio bat ematen du.

**J.A.:** Kalitatezko produktu bat lortu eta eskaini gura dugu. Txerriak hemen aske daude, ez daude bi metro karratuan sartuta, kortan. Jendeari gustatuko zaion kalitatezko produktua sortzeak halako satisfakzioa ematen du.

**Hurbildu zaizue inor?**

**X.S.:** Zertan gabiltzan esanda, abisatzeko esan digute batzuek, eta kontsumo taldea sortzean hurbilduko garela esan diegu.

**Euskal Txerriak eta basatxerrikoak dituzue. Oso desberdinak dira?**

**X.S.:** Euskal Txerria ez da bestea besteko produktiboa. Koipe gehiago dauka, eta okela gutxiago; gizentzeko ere denbora gehiago behar du... Horregatik, sasoi batean galdu beharrean egon zen. Gaur egun, iparraldean hainbat kooperatiba daude eta Gipuzkoan ere badabiltza Euskal Txerriaren produktuak merkaturatzen. Dena den, gehiago kostatzen da Euskal Txerria haztea, eta ateratako produktuak ere gutxiago dira.

**Iberikoen parekoa da?**

**X.S.:** Ez dakit! (barrez). Gipuzkoan badaude 100 bat buru dituztenak basoan. Okela freskoa saldu barik, iparraldean dauden kooperatibetan elaboratzen dituzte produktuak; eta delicatesen lez saltzen dira. Badu ospea. Ez dut uste horretara helduko garenik. Ikusteko dago.

**Nolakok dira txerriak?**

**J.A.:** Zikin ospea dute, baina ez dira batere zikinak. Jan eta kaka ez dute leku berean egingo. Freskatzeko ibiltzen dira lupetzetan, eta oso formalak dira. Guk aske ditugu eta eredu horri jarraitu gura diogu, Basatxerrik horrela izaten ditu. Produktuaren kalitatean eragina du horrek: basoan topatzen dutena jaten dute eta guk emandako garagarra eta artouruna. Gatzure, sagarrak, makatzak, belarra... ere bai.

**X.S.:** Kortan irudikatzen ditugu, bi metro karratuan. Hori da kontua.




## LAUHORTZA

**AINHOA OLASO SOPELANA**

Ikaslea



### Alferkeriaz

Badago giro bat, udan batez ere, alferkerian egotea legalagoa dela ematen duena. Zereginek badute aurretik gehitutako "nagipluskeria" bat. Alferrak egiten (ez) dituenak produktibo eta ez -produktiboaren neurgailuan sailkatu ditzakegunak inkluso, baina ez du horretarako gogorik ere izaten.

Oporraldian, irail hasieran kontatzeko moduko istorioen zerrenda puzten saiatzen dira batzuk, (bidaiatzen duenak zerbait konta dezake). Lanera doaz besteak, autoeskolara, azal kolorea iluntzera, jaien bueltan antolatzen hastera...

Alferrak, agendaren linbo honetan, ikasturtean zehar egin ez duena egiteko aukera ikusten zuen ekain hasieran (lagunekin afaldu, ligatu, Tourmalet igo...), baina amaierarako utziko ditu hauek guztiak, "abuztuan, fijo".

Alferrari ez dio apenas lotsarik ematen egin ez duena onartzeak, alferkeriari etekina ateratzeko ere gai da. Ez du aitzakia bat bilatzeko esfortzua egiteko beharrik. Egin ez duenaz mintzo daiteke.

Kataluniarrek urriaren lehenengorako utzi dute erreferendumaren eguna. Herri boterearen erakustaldi handienetariko bat, alferraren legeari izkin eginez. Erabakitzeko obligazioa lerro artean jarrita, alferkerian ibilitakoari lurreratzeko tartea utzita.

Hilabete eskasean, luzaroan landutakoa (batzuen alferkeriaz pausatutakoa, akaso) proban jartzeko, herriari galdetzeko. Erregimena kolokan jartzeko, bideak zabaltzeko, eraikitzeko. Alferkeria ez dadila aitzakia izan.

CEPA HHI DURANGO ERMUA-ZORNOTZA

DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA

CEPA DURANGO HHI

Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253

www.epadurango.hezkuntza.net

IRAKASKUNTZA ARAUTUA
- Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA
- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ

946 814 253

www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA: irailaren 1etik 15era

Matrikula egiteko ordutegia:

Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00

Ostiraletan: 09:00-13:00